



Berpiztu 2023 programaren emaitzen eta Berpiztu 2024 programaren aurreikuspenaren txostena

berpiztu

EUSKADIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA
SUSPERTZEKO PROGRAMA (2020-2024)



KONTSEILU ERREKTOREA
2024ko martxoak 12



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*BEHAR DENA EGINGO DUGU AHALIK
ETA ENPLEGU GEHIEN
MANTENTZEKO ETA GALDUTAKO
ENPLEGU GUZTIA BERRESKURATZEKO*

(Lehendakaria. Mahai Sozioekonomikoa, 2020/05/27)



Aurkibidea

1. Berpiztu Programa (2020-2024)	4
2. 2023an exekutatuakoren balantze orokorra	13
3. 2024ko aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena	21
4. 2020-2024 aldiaren aurrerapen orokorra	26

ERANSKINAK

1. eranskina. Berpiztu 2023: aurrekontuaren exekuzioa eta emaitzak	30
2. eranskina. Berpiztu 2024: aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena	62

ONDORIOAK



BERPIZTUrekin lotutako programei
buruzko informazio guztia
irekia.euskadi.eus/berpiztu


84





1.

Berpiztu Programa (2020-2024)




EAEko erakundeen artean partekatutako erantzun globala

Erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa inoiz baino garrantzitsuagoak dira une honetan, Covid-19aren pandemiaren ondorioek eragindako egoera konplexu eta zailari aurre egiteko, eta, are gehiago, Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteko; izan ere, horrek arazoak ekarri dizkie enpresei eta pertsoneri, eta euskal gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea zalantzan jarri dituzte.

Testuinguru aldakor horretan, 2020tik dago martxan plan hau, eta Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiak bat egin zuten haren oinarriekin, ekonomia eta enplegua batera suspertzeko.

Partekatutako oinarri horien gainean, **Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa onartu zuen Eusko Jaurlaritzak**, 2020ko azaroaren 3ko gobernu-kontseiluan, foru-aldundien eta eragile ekonomiko eta sozialen kontraste- eta ekarpen-prozesu baten ondoren.



[Iturria: Bepiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



Aurre egin beharreko 3 trantsizio global handi

Euskadik megajoera horiek trantsizio teknologiko-digital, energetiko-ingurumeneko eta sanitario-sozialaren hirukotean laburbiltzen ditu, herrien, negozioen, industrien, gizarteen eta pertsonen etorkizuna eraldatzeko gaitasuna dutela kontuan hartuta. Megajoera horiek, era berean, aukera ona izan daitezke enplegua sortzeko, eta, horretarako, prestakuntza egokia duten pertsonak eduki behar ditugu.



TRANSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA

Digitalizazioa.

Adimen artifiziala eta Big Data.

Teknologia, herritarren zerbitzura.

Automatizazioa.

Zibersegurtasuna.

Bidezko ekonomia digital eta lehiakorren sustapena.



TRANSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA

Neutraltasun klimatikoa.

Energia-sistemaren deskarbonizazioa.

Baliabideen eta energiaren erabilera efizientea –ekonomia zirkularra–

Mugikortasun jasangarria eta adimenduna.

Bidezko trantsizio energetikoa.

From farm to fork.



TRANSICIÓN SOCIAL Y SANITARIA

Osasun-sistema eta arrisku pandemikoak.

Demografia eta zahartze osasuntsua.

Migrazioa.

Genero-berdintasuna.

Zainketa-eredu berriak.


Gizarte- eta lurralde-koheretza.

[Iturria: Berpiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)

Next Generation EU tresna europarrarekin bat datorren programa

Next Generation EU funts europarrak erreferentzia-esparru globala ezartzen du baliabide eta ahalegin publiko eta pribatuak Europa ekologiko, digital eta erresilientea eraikitzea bideratzeko, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartuko dituen hazkunde jasangarri eta integratzailearen bidez.

Euskadik ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren definiziorako oinarri gisa partekatzen eta bereganatzen ditu orientazio hauek, eta bere estrategiako ardatzen eta suspertze-tresna europarraren arteko bateratzea ezartzen du. Horrenbestez, ekonomia indarberritzeko ardatzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren filosofia eta funtsa txertatzen ditu, eta, bestalde, Enplegua Sortzeko Ardatzak gizarte- eta lurralde-kohesiorako REACT-EU Programaren dimentsio handiak jorratzen ditu.



[Iturria: Berpiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren programa bat

Euskadik bere gain hartu du garapen jasangarrirako helburuekin (GJH) bat egiteko konpromisoa, eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan xertatu du. Hauek dira estrategia honekin zerikusi handiena duten garapen jasangarrirako helburuak:

5. Genero-berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia irisgarria eta ez-kutsagarria
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdineriak murriztea
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
13. Klimaren aldeko ekintza

Garapen jasangarrirako helburuetan, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren esparruan, 41 xede, 25 planifikazio-tresna, 10 ekimen legegile, 39 konpromiso ez ezik, 336 adierazlez osatutako aginte-taula bat ere sartzen da.

Gainera, 3 trantsizioekin oso lotuta dauden GJHak dira:

- Trantsizio teknologiko-digitala: GJH8 eta GJH9
- Trantsizio energetiko-ingurumenekoa: GJH7, GJH8, GJH11, GJH12 eta GJH13
- Trantsizio sozial eta sanitarioa: GJH8 eta GJH10



Enplegua eta ekonomia suspertzeko Programa, 10 konpromisorekin

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak helburu zehatzak planteatzen ditu, **Euskadiko enpleguarekin, susperraldi ekonomikoarekin eta erresilientziarekin lotuta, eta** Next Generation EU Funtzaren esparruan egindako **gomendio europarrekin bat**. Hauek dira, zehatz-mehatz, helburuak:

1 Inbertsio publikoarekiko konpromisoa: 13.250 milioi euroko ahalegin publikoa egitea, ekonomia suspertzeko eta enplegua dinamizatzeko.

2 Enpleguarekiko konpromisoa: langabezia-tasa % 10etik behera kokatzea eta 130.000 enplegu dinamizatzea.

3 Gazteriarekiko konpromisoa: lehen lan-esperientzia eskaintzea 25.000 gazte baino gehiagori, hezkuntza-mundutik lan-mundura igartzeko programetan, kontratazio-konpromisoa duen prestakuntzan, enplegurako prestakuntza duela, gazte-ekintzailatzen eta nazioarteko espezializazioan.

4 Enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa: gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakala murrizteko, zaintza-eredu arduratsu berriak garatzeko, lana eta familia uztartzeko eta kontratazioan iruzurra jazartzeko programak garatzea.

5 I+G+Barekiko konpromisoa: inbertsio publikoa urteko batezbestekoan % 6 handitzeko lan egitea, Euskadi berrikuntza gune izan dadin Europar eta trantsizio globalei aukera moduan egin dakien aurre.

6 Europako estrategiarekiko konpromisoa: Europar Batasunak ezarritako eraldaketa-ardatz nagusiekin bat, Euskadi digitalagoa, Euskadi berdeagoa eta Euskadi inklusiboagoa eraikitzea.

7 Garapen jasangarrirako helburuekiko konpromisoa: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, erronka teknologikoekin eta erronka sozialekin zuzenean lotutako garapen jasangarrirako helburuei erantzuna ematea. Ingurumen-erronkek ere funtsezko zeregina dute energia berriztagarrietarako trantsizioa bizkortzeko, hiri-birgaitze energetikoa lortzeko energia-efizientziako irizpideekin eta mugikortasun jasangarria eskuratzeko, tren lehentasunezko ardatz hartuta.

8 Industriarekiko konpromisoa: industria jotzen da Euskadiko ekonomia eraldatu eta berpizteko motortzat. Industria aurreratua, digitalizatua eta nazioartekotua. Industria berria, inklusiboagoa eta parte-hartzaileagoa.

9 Enplegu publikoarekiko konpromisoa: enplegatu publikoen finkotasuna eta administrazioaren berrikuntza sustatzea, informazioaren teknologia berriak eta digitalizazioa sartuta, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko.


10 Zerbitzu publikoak hobetzeko konpromisoa: osasun- eta hezkuntza-sistemen eraldaketa fisiko eta digitala. Osasuna, zahartzarora eta zainketak izango dira ekonomian eta enpleguan aukerak eskaintzen dituzten nitxo berriak.



Bi ardatz egituratzaile, eta zeharkako eremu bat

Ekonomia eta enplegua suspertzeko BERPIZTU Programa 2020-2024 ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko erronken gaineko erantzun integrala da, eta **bi ardatz bertikal nagusitan egituratzen da: «Ekonomia suspertzea» eta «Enplegua sortzea».** Ardatz horiek **12 jardunbidetan hedatzen dira**, eta horiek, era berean, ekonomia eta enplegua suspertzeko eta sustatzeko hainbat tresna eta neurriren erreferentzia-esparrua dira (estrategiaren aldiari zehar garatu beharrekoak). Halaber, hirugarren ardatz edo **zeharkako eremu bat ere zehazten da, «Enpleguaren kalitatea hobetzea» (Programaren hamahirugarren politika).**

Arestian aipatutako 12 politika eta 60 jarduketa-ildoetan, baita programa eta neurri guztietan ere, genero-ikuspegia txertatuko da; horrela, emakumeen eta gizonen abiapuntu eta beharrian desberdinak hartuko dira kontuan.



I. ardatza: Ekonomia suspertzea

1. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
2. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
3. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
4. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
5. Elikagaigintza
6. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

II. ardatza - Enplegua sortzea

7. Ekintzailatza. Enpresa berriak
8. Enplegurako prestakuntza
9. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
10. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza
11. Enplegu Publikoaren Eskaintza
12. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

Zeharkako eremua: enpleguaren kalitatea hobetzea

- Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murriztea
- Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)
- Prebenziõa eta lan-segurtasuna areagotzea
- Lan-ikuskaritza indartzea
- Erantzunkidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea
- Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantz eboluzionatzea
- Elkarriketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea


[Iturria: Berpiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



13.250 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa


Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak **13.250 milioi euroko (*) aurrekontu-inbertsio zenbatetsia dauka 2020-2024 aldirako**. Zenbateko horretatik 9.550 milioi euroko aurrekontua bideratuko da ekonomia suspertu eta enplegua sortzeko bi ardatz nagusietara, eta 3.700 milioi euro gehitu dira enpresentzako eta pertsona autonomoentzako abal gisa.

Aurrekontuan, 7.935 milioi horiek dira ekonomia suspertzeko ardatzerako eta 1.615 milioi euro enplegua sortzeko ardatzerako.



(*) Oharra: 2020-2024 aldirako XII. legealdirako inbertsio-datuak dira, legealdia hasi zenetik aintzat hartuta. Aurrekontuetan 2020ko guttizkoaren % 50 kalkulatu da.

Berpiztu Programa 2020-2024 (2020-11-03ko gobernu-kontseilua)






2.


BERPIZTU 2023 Programaren exekuzioaren balantze orokorra



2023an AURREIKUSITAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2023an EXEKUTATUTAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2023ko aurrekontuaren exekuzioa

I. ARDATZA – EKONOMIA SUSPERTZEA

I. ardatzak – Ekonomia suspertzea – 2.810 M €-ko (emaitzen aurrerapena) aurrekontu-exekuzioa lortu du 2023an. Horrek esan nahi du, oro har, I. ardatzean definitutako politiketarako hasieran egindako aurrekontu-aurreikuspenaren % 90 izango dela.

I. ARDATZEKO POLITIKAK - EKONOMIA SUSPERTZEA	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2023 (2)	2023ko betearazpena (3)
1. INBERTSIOA AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN	2.976 M€	996 M€	932 M€
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	622 M€	612 M€
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	209 M€	125 M€
4.- INDUSTRIA ETA ETEAK, ZERBITZU AURRERATUAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	401 M€	205 M€
5.- ELIKAGAIEN INDUSTRIA	613 M€	182 M€	205 M€
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	80 M€	81 M€
I. ARDATZA (guztizko partziala) - EKONOMIA SUSPERTZEA	7.935 M€	2.490 M€	2.160 M€
ABALAK	3.700 M€	650 M€	650 M€
I. ARDATZA, EKONOMIAREN SUSPERTZEA, GUZTIRA	11.635 M€	3.140 M€	2.810 M€

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako kalkulaturako aurreikusitako aurrekontuen datuak (2020ko irailetik abendura bitarteko aldiari dagokion zatia barne).

2. oharra: 2023ko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik datoz.

3. oharra: 2023ko gauzatze-zifrak bat datoz Ogasun Sailaren Gardena webean argitaratutako azken datuekin (D fasean esleitutako aurrekontuak), Sailaren kontraste batekin batera. Datu horiek aurrerapausoak dira, eta behin betiko betearazpenari buruzko datuak eskuratu ondoren berrikusi ahal izango dira.

(*) Enpresa-partaidetzek aurrekontu-estaldura bermatua dute, aztertzen ari dira eta ekitaldi honetan gauzatzea aurreikusten da.



2023an exekutaturako aurrekontua eta emaitzak

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

II. ardatzak – Enplegua sortzea – 429 milioi euroko aurrekontua gauzatu du (emaitzen aurrerapena) eta aurreikusitako aurrekontuaren % 102; kalkuluen arabera, 2023an 48.073 enplegu sustatu dira (emaitzen aurrerapena).

II. ARDATZEKO POLITIKAK - ENPLEGUA	2020-2024 aurreikuspena		2023ko aurreikuspena (2)		2023ko betearazpena (3)	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILTZA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	38 M€	3.269	30 M€	3.173
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA (4)	342 M€	42.100	86 M€	18.425	81 M€	18.035
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577M€	26.110	140 M€	5.469	139 M€	4.912
10.- RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZA BIRGAITZEA	406 M€	15.000	121 M€	4.343	119 M€	4.348
11.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)		10.720	-	500	-	3.320
12.- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA (*)	162 M€	25.800	32 M€	6.529	60 M€	14.285
II. ARDATZA - ENPLEGUA, GUZTIRA	1.615 M€	130.520	417 M€	38.534	429 M€	48.073

- oharra: Enplegu Publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapitulu Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.
- oharra: II. ardatzeko – Enplegua sortzea – 2023ko datuen jatorria Superegiturak 210 – Enplegu Plana izeneko txostenean dago. 2023an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.
- oharra: 2023ko exekuzio-zifrak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Gardena (D fasean esleitutako aurrekontuak) web-orrian argitaratutako azken datuei dagozkie, Sailaren kontraste batekin batera. Datu horiek aurrerapen-izaera dute, eta behin betiko betearazpenari buruzko datuak eskuratu ondoren berrikusi ahal izango dira.
- oharra: 2020-2024 hasierako aurreikuspenari aplikatutako Enplegurako Prestakuntzako jardueretan erabilitako laneratze-tasa, zuhurtasun-irizpidearen arabera, murriztaileagoak izan ziren (% 25) kudeaketa-gomendioetatik eratorritakoak baino (% 45). % 45eko laneratze-tasa hori erabili da 2021etik aurrera (2022an eta 2023an) enpleguan izango duen eragina kalkulatzeko, Hezkuntza Sailaren eta Lan eta Enplegu Sailaren (Lanbide) jarraibideen arabera, emaitzen benetako esperientzian oinarrituta..

(*) Gazteen enplegurako programen betetze-maila handia izan da Prestakuntza Dualeko enpleguan izandako eraginari buruzko datuak nabarmen igo direlako (8.789 enplegu, aurreikusitako 2.184 enpleguen aldean), LHko Duala erregimen orokorrean ezarri delako 1. mailan eta 2. mailan. 2022ra arte, LHko duala araubide intentsiboan eta 2. mailan baino ez zegoen ezarrita. Horri, gainera, aurrekontu-aurreikuspenen eta eraginean sartu ez diren programa berriak gehitu behar zaizkio. Programa horiek herri-administrazioetako lehen esperientziari (11M €, 389 enpleguko eraginarekin) eta Investigo programari (17,7M €, 408 enpleguko eraginarekin) dagozkienak dira.



2023ko beste emaitza batzuk

Enpleguak sustatzeaz gain, kalkulatu da Berpiztu Programak **beste eragin eta emaitza batzuk** izan dituela 2023an jardura ekonomikoan: **1.282 enpresa berri sortu** dira (mikroETEak eta autonomo berriak barne); **I+G+b arloko 248 proiektu** sustatu eta finantzatu dira; eta **2.655 industria-enpresari** lagundu zaie modernizatzen eta hedatzen.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak 2020-2024	2023rako aurreikusitako BERPIZTU emaitzak	2023ko emaitzak (*)
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	1.628	1.282
Mikroekintzailletza berriak eta pertsona autonomoak	5.000	1.365	1.125
Enpresa berritzaile berriak	1.000	263	157
EUROPAKO I+G+b PROIEKTUAK	600	175	248
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (**)	600	175	248
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	2.200	2.655
Nazioartekotzeko	1.500	350	319
Modernizatzeke eta hedatzeke	1.500	350	628
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	250	746
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	450	92
Produktu berriak garatzeko	4.000	800	870

(*) Datuak 2023ko ETEen Planaren emaitzen bidez bildutako informazioan oinarrituta kalkulatu dira, sail arduradunek bidalita. Mikroekintzailletza berrien kasuan, aurreikusitako aurrekontuaren gaineko aurrekontu-gauzatzearen arabera kalkulatu dira emaitzak (% 83).

(**) 2020-2024 hasierako aurreikuspenak Europako I+G+Bko 600 proiektura eguneratu dira, Horizonte Europa Europako ikerketa-programa berria abiarazteko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.



Ekonomiaren Susperraldia eta Enplegua Sustatzeko Ardatzek konpromiso inplizitua dute galdutako enplegua berreskuratzeko, dagoena finkatzeko eta haren kalitatea hobetzeko. Konpromiso hori Berpiztu Programa osoaren zeharkako eremu batean islatzen da: 3. ardatza. Enpleguaren kalitatea eta genero-berdintasuna. Konpromiso horretatik abiatuta, 2021ean, **2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia** onartu zen, eragile sozialekin eta legebiltzar-taldeekin batera lan egiteko prozesu batean. Estrategia horrek kalitatezko enpleguaren aldeko itun inklusibo bat proposatzen du, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean lagunduko duena. 2023an, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea onartu izana nabarmendu behar da; horren bidez, Euskadin lehen aldiz garatu da autogobernua enplegu-politika aktiboetan. Era berean, **2022an onartutako 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoaren** ezarpena zehazten du. Honako ekintza hauek nabarmentzen dira:

Emakumeen eta gizonen berdintasuna

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 1/2022 Legearen aldaketaren aplikazioan aurrera egin da 2023an Emakumeentzako Aukera Berdintasuna Sustatzeko arloan, dauden egiturak planifikatzea eta indartzea eta gobernantza hobetzea bultzatuz. Era berean, Emakundek eta Euskalitek beren lankidetzeta-hitzarmena luzatu dute, eta horren bidez hainbat proiektu garatzen dituzte, kudeaketa aurreratuan berdintasuna hobeto txertatzeko eta enpresen lehiakortasunaren aurrerapenari eta Euskadiren garapen jasangarriari laguntzeko. Hitzarmen horren esparruan, bi erakundeek mugarri hauek nabarmendu dituzte: kudeaketari genero-ikuspegitik balioa emateko gida egitea; kudeaketako berdintasun-jardunbide egokiak jasotzea eta identifikatzea, kudeaketa aurreratuko berdintasun-praktiken bilatzailean urtero jaso direnak; eta enpresetan berdintasuna kudeatzeari buruzko KnowInn urteko ikastaroa abian jartzea. Bestalde, nabarmentzekoa da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak Mujer Siglo XXI elkarteak antolatutako "Inspiring girls" ekimenaren aurkezpen-ekitaldian parte hartu zuela. Proiektu hori Erresuma Batuan sortu zen, eta neskatoek beren etorkizun profesionala aukera dezaten sustatu nahi du, genero-erolek eta -estereotipoek hura mugatu gabe, haiek sektore guztietako emakume profesionalekin harremanetan jarritz.

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztea

Euskadik aurrera egiten jarraitzen du soldata-arrakala murrizten. Emakundek aurkeztutako "Soldata-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan" txostenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen eta emakumeen soldata-arrakala % 22,6 da, eta ehuneko hori 5,5 puntu murriztu da 2015etik. Ildo horretan, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko genero-berdintasuneko taldeak Euskadin soldata-arrakala murrizteko Eusko Jaurlaritzaren estrategian aurreikusitako urratsen berri eman du, 2021/2025 ekintza-plana definitzen saiatzeko. Halaber, Emakunde berdintasunari eta negoziazio kolektiboari buruz egiten ari den bi lanen goeraren berri eman da, baita Lan Sailburuordetza lantzen ari den hitzarmen kolektiboaren diagnostiko eguneratuaren aurrerapenaren berri ere.

Prekarietatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)

Lan Ikuskaritzak kontrol-neurriak hartzen eta kanpainak egiten jarraitu du laneko prekarietateari eta sexu- edo desgaitasun-arrazoiengatik enplegu-diskriminazioari aurre egiteko. 2023. urtean, Lan Ikuskaritzak kontratazio-iruzurraren aurkako Talka Plana ezarri du, "lanaldi partzialeko kontratazioko abusuen" aurka. 2023ko balantzearen arabera, kontratazioari egindako iruzurraren aurkako jarduketa globalen ondorioz 18.627 kontratu berrikusi ziren, 12.605 Euskadiko Lan Ikuskaritzaren ohiko jardunaren ondorioz, eta 6.022 Talka Planaren esparruan. Horietatik 5.316 kontratu mugagabe eta lanaldi osokoak bihurtzea lortu zen, 2.982 ohiko jardueragatik eta 2.334 talka-planean.

Laneko prebentzioa eta segurtasuna handitzea

Aurtengo Adecco Txostenean zehazten denez, laneko ezbehar-tasa % 21 jaitsi da Euskadin 2022an, eta % 20 in itinere istripuetan. Lanaldiko intzidentzia 214 istripukoa da 100.000 biztanleko (estatuko hirugarren txikiena), urterik urterako murrizketa % 21ekoa da, eta 25 pertsonakoa istripua izan dutenak kontuan hartuta. 2023an, OSALANek 30. urteurrenaren barruan antolatutako Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Nazioarteko V. Kongresua izan da Bilbon. Biltzarrak maila goreneko 100 profesional baino gehiago bildu zituen, adituak laneko arriskuen prebentzioaren eta industria-segurtasunaren arloan, bai estatuan ari direnak, baita nazioartean dihardutenak ere.

Lan-ikuskaritza indartzea

Erakunde horren zeregina indartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren 2022-2024 aldirako Kudeaketa Plana ezartzen jarraitzen da, langile guztientzako lan segurua, berdintasunezkoa eta eskubideduna bermatzeko. Plan horren esparruan, Ikuskapen Unitate berri bat sortu da, DSBEa behar bezala betetzen dela ziurtatzeko aholkularitza- eta kontrol-lanean arituko dena. Horretarako, Kontrol Unitateak 14 langile berri ditu, orain arte Lanbideren barneko auditoretza-organoa osatzen zuten bostez gain. Gainera, Lan eta Enplegu Sailak lehenengo sei bekak deitu ditu, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailatza eta Ikuskatzaileordetzako kidegoetan parte hartu nahi dutenei oposizioak prestatzeko laguntza eskainiko dietenak, legegintzaldi honetan zerbitzu publiko horri emandako errefortzuan sakontzeko.

Erantzukidetasuna eta lana eta familia bateragarri egitea sustatzea.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren aurreikuspenak aplikatzen jarraitu da, eta lehendik abian diren kontziliazio-programak indartu dira. Ildo beretik, beste programa batzuk indartu dira, hala nola gurasotasun positiboko Gurasotasuna programa, familiekin eta gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta justizia-esparruekin harremanetan lan egiten duten profesionalen zuzendua. Gainera, irailaren 7ko 102/2022 Dekretua sustatu da, zeinaren bidez laguntzak bideratzen baitira 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko, eta, era berean, laguntza-lerro berriak jarri dira abian enpresentzat, familia-konziliazio erantzukidea sustatzeko.

Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantz eboluzionatzea.

2019an "Oñatiko Adierazpena" onartu zenetik, enpresa-eredu "humanistagoa" lortzeko bidean aurrera egitea erronka da oraindik ere antolaketa- eta enpresa-eremuan. 2023an, Oñatiko Adierazpena bultzatzeko jardunaldien 3. edizioa egin zen. Jardunaldi horiek arrakasta izan dute ordezkariari eta parte-hartzeari dagokienez; izan ere, mundu akademiko, sindikal eta administratiboko ordezkariak ikuspegi desberdinak trukatu dituzte elkarrizketa sozialari buruz, aldaketarako eta lana duintzeko tresna gisa. Euskal unibertsitate guztietako, Espainiako unibertsitate askotako eta beste erakunde eta instituzio batzuetako 200 pertsonak hartu dute parte.

Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea.

Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak 2023ko Lan Plana onartu du. Plan horren bidez, dagoeneko funtzionatzen ari diren lantaldeez gain – Lan Ikuskaritzako Planaren jarraipena; Osasuna eta Giza Baliabideen Kudeaketa; eta Erakundeen Partaidetzarako Legearen Proiektua idaztea –, honako gai hauei heltzea erabaki da: erronka demografikoa enpleguaren eta lan-harremanen ikuspegitik, zainketen aldeko etorkizuneko herrialde-ituna eta gazteen enpleguaren kalitatearen aldeko behin-behineko ituna emantzipazio-estrategiaren esparruan.




3.

BERPIZTU 2024 Aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena



2024rako AURREIKUSITAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



I. ARDATZAK – Ekonomia Suspertzea – 2.555 M€-ko aurrekontua aurreikusten du 2024rako, beheko taulan jasotako politiken arabera xehetasunarekin.

I. ARDATZEKO POLITIKAK - EKONOMIA SUSPERTZEA	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2024 (2)
1. INBERTSIOA AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN	2.976 M€	1.093 M€
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	625 M€
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	201 M€
4.- INDUSTRIA ETA ETEAK, ZERBITZU AURRERATUAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	345 M€
5.- ELIKAGAIEN INDUSTRIA	613 M€	208 M€
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	83 M€
I. ARDATZA (guztizko partziala) - EKONOMIA SUSPERTZEA	7.935 M€	2.555 M€
(*) ABALAK	3.700 M€	650 M€
I. ARDATZA, EKONOMIA SUSPERTZEA, GUZTIRA	11.635 M€	3.205 M€

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei buruzko datuak, 2020ko irailaren 1etik aurrera.

2. oharra: 2024ko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean 2023ko abenduaren 22an onartutako aurrekontuetatik datoz.

2024ko aurrekontuaren eta enplegu-inpaktuaren aurreikuspena

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

II. ardatzak (Enplegua sortzea) 450 M€-ko aurrekontua aurreikusten du 2024rako, eta, beraz, 53.805 enplegu sustatzen laguntzea aurreikusten da, beheko taulan jasotako politiken arabera xehetasunarekin.

II. ARDATZEKO POLITIKAK - ENPLEGUA	2020-2024 aurreikuspena		2024ko aurreikuspena (2)	
	Inbertsioak (M€)	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILAZA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	38 M€	3.976
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA (3)	342 M€	42.100	86 M€	20.056
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577M€	26.110	151 M€	6.036
10.- RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZA BIRGAITZEA	406 M€	15.000	134 M€	4.385
11.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)		10.720	-	2.901
12.- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M€	25.800	41 M€	16.451
II. ARDATZA - ENPLEGUA, GUZTIRA	1.615 M€	130.520	450 M€	53.805

1. oharra: Enplegu Publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluko Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. Ardatzerako (Enplegua sortzea) 2024ko datuak honako txosten honetan daude oinarrituta: "Gainegiturak 210. Enplegu Plana". 2024an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenaren oinarritzen da, ondoren Programa hori sailek berrikusi eta eguneratu dute.

3. oharra: 2020-2024 aldirako hasierako aurreikuspeneko Enplegurako Prestakuntzako jardueretan erabilitako laneratze-tasa, zuhertasun-irizpideagatik, murriztaileagoa izan zen (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45). Laneratze-tasa hori (%45) erabili da 2024an enpleguan izandako eragina kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.



2024ko beste emaitza batzuen aurreikuspena

Enpleguak sustatzeaz gain, Berpiztu programak **jarduera ekonomikoan beste eragin batzuk** ere izango dituela uste da, **eta 1.705 enpresa berri** sortzen lagunduko duela (mikroETEak eta autonomo berriak barne); **I+G+b arloko 175 proiektu** bultzatu eta finantzatuko dituela; eta **2.200 industria-enpresa** modernizatzen eta hedatzen lagunduko duela.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak 2020-2024	2024rako aurreikusitako BERPIZTU emaitzak
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	1.705
Mikroekintzailletza berriak eta pertsona autonomoak	5.000	1.430
Enpresa berritzaile berriak	1.000	275
EUROPAKO I+G+b PROIEKTUAK	600	175
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (*)	600	175
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	2.200
Nazioartekotzeko	1.500	350
Modernizatze eta hedatze	1.500	350
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	250
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	450
Produktu berriak garatzeko	4.000	800

Oharra: Berpiztu programaren aurreikuspenak

(*) Hasierako aurreikuspenak (2020-2024) Europako I+G+b arloko 600 proiektura eguneratu dira, Europako "Horizonte Europa" ikerketa-programa berria abian jartzeko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.





4.

BERPIZTU 2020-2024 Aurrerapen orokorra



2020-2024 aldian metatutako aurrekontuaren aurrerapena

Ondoren, 2020an, 2021ean, 2022an eta 2023an exekutututako aurrekontuaren eta 2024an I. ardatzerako (Ekonomia suspertzea) aurreikusitako aurrekontuaren aurrerapen-ikuspegi orokor metatua dago adierazita.

I. ARDATZEKO (EKONOMIA SUSPERTZEA) POLITIKAK	Aurreikuspe na 2020-2024 (M€)	2020an exekutatuta- koa (XII. legealdia, irailetik abendura) (1)	Exekutatuta- koa 2021(1)	Exekutatuta- koa 2022	Exekutatuta- koa 2023 (1)	Exekuzio metatua 2020-2023	Aurreikuspena 2024 (2)	2020-2024 Aldirako Aurrerapen metatua
1. AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN INBERTITZEA	2.976 M€	341 M€	702 M€	794 M€	932 M€	2.769 M€	1.093	3.862
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	264 M€	522 M€	595 M€	612 M€	1.993 M€	625	2.618
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	39 M€	136 M€	133 M€	125 M€	433 M€	201	634
4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN-INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	236 M€	287 M€	316 M€	205 M€	1.044 M€	345	1.389
5. ELIKAGAIGINTZA	613 M€	110 M€	166 M€	226 M€	205 M€	706 M€	208	914
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	25 M€	129 M€	120 M€	81 M€	354 M€	83	437
I. ARDATZA (EKONOMIA SUSPERTZEA), GUZTIRA	7.935 M€	1.015 M€	1.942 M€	2.183 M€	2.160 M€	7.299 M€	2.555 M€	9.855 M€
(*) ABALAK	3.700 M€	1.100 M€	650 M€	650 M€	650 M€	3.050 M€	650 M€	3.700 M€
I. ARDATZA (EKONOMIA SUSPERTZEA), GUZTIRA	11.635 M€	2.115 M€	2.592 M€	2.833 M€	2.810 M€	10.349 M€	3.205 M€	13.555 M€

1. oharra: 2020ko exekuzio-zifrak irailetik abendura bitarteko aldiari dagozkio, eta egozpena, 2020an exekutututako aurrekontu osoaren % 61. 2021, 2022 eta 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

2. oharra: 2024ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2023ko abenduaren 22an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.



2020-2024 aldirako aurrekontu metatuaren aurrerapena eta enpleguaren sustapena

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

Ondoren, 2020an, 2021, 2022 eta 2023an exekutututako aurrekontuaren eta 2024rako aurreikusitako aurrekontuaren aurrerapen orokor metatua eta II. ardatzerako (Enplegua sortzea) enplegua suspertzeko egindako ekarpena adierazten dira.

II. ARDATZEKO (ENPLEGUA SORTZEA) POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (1)		2020an exekutututakoa (XII legealdia, irailetik abendura) (2)		2021an exekutututakoa		2022an exekutututakoa		2023an exekutututakoa		Exekuzio metatua 2020-2021		Aurreikuspena 2024 (3)		Aurrerapen orokor metatua 2020-2024	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILITZA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	15 M€	1.674	25 M€	2.353	34,6 M€	2.657	30 M€	3.173	105,4 M€	9.857	38 M€	3.976	143,3	13.833
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	342 M€	42.100	31 M€	3.967	78 M€	12.145	71,3 M€	17.982	81 M€	18.035	260,8 M€	52.129	86 M€	20.056	347,2	72.185
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577 M€	26.110	60 M€	4.970	109 M€	6.371	118,0 M€	4.689	139 M€	4.912	425,6 M€	20.942	151 M€	6.036	577,3	26.978
10. RENOVE PROGRAMAK. ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA	406 M€	15.000	51 M€	3.225	76 M€	3.079	93 M€	3.475	119 M€	4.348	338,7 M€	14.127	134 M€	4.385	472,4	18.512
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)		10.720	--	2.538	--	3.988		8.764	--	3.320	-	18.610	--	2.901	0,0	21.511
12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M€	25.800	11 M€	2.519	27 M€	5.605	51,2 M€	6.291	60 M€	14.285	149,6 M€	28.700	41 M€	16.451	190,3	45.151
II. ARDATZA (ENPLEGUA SORTZEA), GUZTIRA	1.615 M€	130.520	168 M€	18.893	315 M€	33.541	368 M€	43.859	429 M€	48.073	1.280 M€	144.365	450 M€	53.805	1.730 M€	198.170

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, legealdia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (2020ko iraila). Enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) aurrekontu-exekuzioa eta enpleguan duen eragina irailetik abendura bitartekoak dira, eta 1. ardatzeko (Ekonomia suspertzea) aurrekontu-exekuzioaren egozpen-maila bera aplikatuta kalkulatu dira (2020ko aurrekontuaren % 61). 2021, 2022 eta 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datu horiek eta enpleguari buruzkoak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko datuak izatean berrikustea.

3. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2024ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira, eta sailen kontraste osagarria dute. 2024an bultzatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute).



Beste emaitza metatu batzuen aurrerapena (2020-2024)

Ondoren, jarduera ekonomikoko beste inpaktu batzuen ikuspegi metatu orokorra jasotzen da (2020-2023). Horretarako, kontuan hartu dira enpresa berriak sortzea (mikroETEak eta autonomo berriak barne), I+G+Baren arloko proiektuak bultzatu eta finantzatzea eta industria-enpresei modernizatzen eta hedatzen laguntzea.

ADIERAZLEAK	2020-2024 aldiaren aurreikusitako emaitzak	2020ko emaitzak (XII. legealdia, irailetik abendura) (1)	2021eko emaitzak	2022ko emaitzak	2023ko emaitzak	Emaitza metatuak 2020-2024	BERPIZTU 2024 Programaren aurreikuspena (2)	Emaitza metatuak (2020-2024)
ENPLEGUAK GUZTIRA	130.000	18.893	33.541	43.700	48.073	144.365	53.805	198.170
GAZTEEN ENPLEGUAK	25.800	2.519	5.605	6.291	14.285	28.700	16.451	45.151
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	660	1.075	1.622	1.282	4.639	1.705	6.344
Mikroekintzailletza eta autonomo berriak	5.000	545	891	1.492	1.125	4.053	1.430	5.483
Enpresa berritzaile berriak	1.000	115	184	130	157	647	275	922
I+G+B-AREN ARLOKO EUROPAKO PROIEKTUAK	600	97	117	352	248	814	175	989
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen I+G+Baren arloko Europako proiektuak (3)	600	97	117	352	248	814	175	989
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	1.330	2.933	2.782	2.655	9.700	2.200	11.900
Nazioartekotzeko	1.500	170	279	272	319	1.040	350	1.390
Modernizatzeke eta hedatzeke	1.500	214	644	625	628	2.111	350	2.461
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	238	767	790	746	2.541	250	2.791
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	231	293	211	92	827	450	1.277
Produktu berriak garatzeko	4.000	477	950	884	870	3.181	800	3.981

1. oharra: XII. legealdiaren hasieratik aurrerako jarduera ekonomikoko emaitzen egozpena kalkulatzeko (irailetik abendura), I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) exekuzio ekonomikoren egozpen-maila bera aplikatu da (% 61, 2020ko aurrekontuan). Abiapuntuak datuak 2020ko emaitzen memorietatik hartu dira.

2. oharra: 2024rako kalkulaturako emaitzak Berpiztu Programaren aurreikuspenetakoak dira.

3. oharra: Hasierako aurreikuspenak (2020-2024) Europako I+G+b arloko 600 proiektutara eguneratu dira, Horizonte Europa europar ikerketa-programa berria abiarazteko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta. Era berean, 2021eko emaitza zuzendu da (50 proiektu izatetik 117 izatera igaro da), 2022koa (333tik 352 izatera igaro da), behin Europako Ataria eguneratuta, H2020tik Horizonte Europa)






1. eranskina

BERPIZTU 2023


Aurrekontuaren exekuzioaren
xehetasunak, emaitzak eta
ekintza nagusiak





I. ardatza – Ekonomia suspertzea

2023ko Berpiztu Programa

- 1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
 - 2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
 - 3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
 - 4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
 - 5. politika. Elikagaigintza
 - 6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria
- 



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

EUSKADIKO GARRAIO JASANGARRIAREN 2030 GIDA PLANA

TRENBIDE-AZPIEGITURAK

Eusko Jaurlaritzak handitu egin du garraioen arloko aurrekontu-kreditua. Euskotrenek kreditua jaso du bost tren-unitate erosteko (EMU 980), ERTMS (European Rail Traffic Management System) sistemak ezartzeko (hainbat herrialdetan trenbideko trafikoaren elkarrengarritasuna bermatzeko, trafiko-, kontrol- eta segurtasun-sistemak estandarizatuz) eta 940 serieko zazpi tren motorizatuko (gaur egun zirkulazioan daude eta Bilboko metroaren 5. linean emango dute zerbitzua). Gainera, aurreko urteko beste 4,5 milioi soberakin gehiago jasoko ditu. Era berean, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sareak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta ADIFek sinatutako hitzarmena, Donostiako Loiolako Erriberako aldagunea finantzatu eta eraikitzeko. Azkenik, Gasteizko tranbia Salburura hedatzeko zerbitzuei ekin die.

HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK

Hezkuntza Sailak inbertsio esanguratsuak egin ditu zenbait hezkuntza-azpiegituretan: Txorierrri Instituturako eraikin berritzaile bat eraikitzea eta haren eraikin nagusia berritzea; eranskin moderno bat eraikitzea Zumaiako Bigarren Hezkuntzako Instituturako, eta Arrasate Herri Eskola ikastetxerako handitze berri bat eraikitzea; Muskizko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren eraikin berria eraikitzea eta Elorrieta Erreka Mari LHII hedatzea. Horrez gain, Hezkuntza Sailak aurrekontu bat esleitu du Lanbide Heziketan 25 ikasgela digital interaktibo sortzeko.

AZPIEGITURA SANITARIOAK

Osakidetzak irudi bidezko diagnostikorako eta tratamendurako ekipoak berritzeko eta eguneratzeko prozesua osatzen jarraitu du, Osakidetzaren Plan Onkologikoan jaso. INVEAT Planaren pean, Osakidetzak osasun-teknologia altuko 40 ekipo erosi ditu Euskadiko ospitale-sare osorako, diagnostikatzeko eta tratatzeko gaitasuna handitzeko eta osasun-arreta hobetzeko.

Azpiegitura fisikoei eta instalazioei dagokienez, Urdulizko Ospitaleak instalazioak handitu ditu, eta Minaren Unitate Terapeutikoa eta etxeko ospitalizazioa sartu ditu. Gainera, Txagorritxu AUOK Anestesia Ondoko Suspertze Unitate (ABU) berri bat estreinatu du, espazio handiagoa eta pazienteen segurtasun eta erosotasunerako hobekuntzak dituena. Donostiako ospitalegune berrian Protonterapia eta Kanpo Kontsultetako Unitatea eraikiko dela iragarri da. Nabarmentzekoa da, halaber, esterilizazio-zentrala inauguratu izana Galdakao-Usansoloko Unibertsitate Ospitalean, esterilizazio-prozesua zentralizatzeko eta optimizatzeko trazabilitate-sistema informatizatu baten bidez. Osasun-ekipoetan egindako inbertsioari dagokienez, Errekaldeko osasun-zentroko administrazio-eremua berritu da, eta osasun-kontsultategi berriak ireki dira Muruetan eta Foruan.

ETXEBIZITZEN AZPIEGITURAK

Bizitoki-politikak indartzeko konpromisoa berresten da, alokairu eskuragarriaren sustapena eta eraikitako parkea birgaitzea azpimarratuz. Aurten, bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzen aurrekontua nabarmen handitu da, egiturazko erreformei, irisgarritasunari eta energia-efizientziari helduz (PREE programa).

Testuinguru horretan, eremu espezifikoak biziberritzeko konpromisoa nabarmentzen da beste proiektu batzuen artean, hala nola Pasaiako "Andonaegi" zaharberritze-proiektua. Gainera, Zuiako Udalarekin egindako hitzarmen baten bidez, Murgian alokairuko etxebizitza publikoak eraikitzea sustatzen da, Arabako lurralde historikoan etxebizitza eskuragarrien parkea zabaltzeko. Era berean, Alei eremuan (Irun) alokairu-erregimeneko babes publikoko 60 etxebizitza garatzeko hitzarmen bat formalizatu da, etxebizitza eskuragarriaren premian laguntzeaz gain, eremua osorik biziberritzen laguntzeko.



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

KULTURA AZPIEGITURAK

Kultura-azpiegituren arloan, Eusko Jaurlaritzak eskualdeko kultura-ondarea eta -eskaintza aberasteko hainbat ekimen babestu ditu. Euskadiko kultura-elementu garrantzitsuak berreskuratzeko eta balioztatzeko proiektuei jarraipena eman zaie, lehentasunezko jarduketaren eremuen esparruan: Sestaoko Labe Garaiak, La Güata Zallan, Albaola, Agustínak Errenterian, Aiaraldea: Audio, Urduña eta Artziniega.

Era berean, Cristobal Balentziaga Museoaren instalazioak berritzea babestu da, eta Eusko Jaurlaritzak Guggenheim Bilbao Museoan duen parte-hartzea handitu da, artelanak eskuratzeko helburuarekin, eta, horrela, garapen kultural eta artistikoarekiko konpromisoa sendotu da. Bilboko Arte Ederren Museoaren Fundazioari ere zuzeneko dirulaguntza eman zaio, museoa handitzeko eta eraberritzeko lanen barruan artelanak lekualdatzeko. Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Antzoki Nagusia eraberritzeko obrak finantzatu ditu, eta zuzeneko laguntza eman du Audio Antzokian obrak egiteko, tokiko kultura-espazioei ematen dien babesa berretsiz.

AZPIEGITURA HIDRAULIKOAK

URA-Uraren Euskal Agentziak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak hitzarmen estrategiko bat sinatu dute Busturialdean 2025era arte hornidura-obrak egiteko. Akordio horrek funtsezko hiru eremutan banatutako jarduketak aurreikusten ditu: lehendik dauden hornidura-instalazioak hobetzea, herritarren beharrak asetzeko baliabide berriak sartzea eta ura banatzeko sarea eta ur-biltegiak hobetzea. Era berean, URAk lizitazioa ireki du Laguardiako La Hoya erreka leheneratzeko obrak egiteko. Nabarmentzekoa da uholdeen aurkako babes-obrak egin direla zenbait herritan, hala nola Soraluzen, Zadorran (IV. fasea), Arangurenen, Zallan, Abadiñon eta Bakion (Estepona leheneratzeko eta uholdeen aurrean babesteko obrak).

BESTE AZPIEGITURA BATZUK

Euskadiko 12 udalerritan kokatutako 14 auzo kalteberaren hiri-berroneratzera bideratutako zuzeneko dirulaguntzak eman dira. Proiektu horiek auzo kalteberen hiri-berroneratzeko plan integralaren parte dira, eta 21 udalerritara hedatzen dira. Araban, Gasteizko Zaramaga eta Gabilondo guneeetan egingo da lan; Bizkaian, Bilboko hiru auzotan (Unzeta parrokoa, Urizar dorrea eta Uretamendi), Bermeon (Iparragirre eta Txibitxiaga) eta Sestaon (Vista Alegre); eta Gipuzkoan, Arrasaten (Santa Teresa auzoa), Donostian (Altza), Eibarren (Sigma etxebizitzak), Elgoibarren (Beraun), Leaburun (Txarama), Soraluzen (Ezozia) eta Irunen.

PORTU-AZPIEGITURAK

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren jarduketaren garrantzitsuenak portuetako babes-azpiegiturak indartzekoak izan dira, ekaitzek eragindako olatuen talka-energia eta altuera aparteko arazo izan ez daitezzen. Hala, Hondarribiko eta Getariako portuetako kanpoko babes-dikeak sendotzeko obrak amaitu ondoren, Mutrikuko portuko kanpoko dikea luzatzeko obrak egiten jarraitu da. Era berean, Ondarroako portuko babes-dikea sendotzeko obrak esleitu eta hasi dira.

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

Taula honetan, 2023an ekonomia- eta gizarte-azpiegitura publiko berriak sustatzeko exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2023 (2)	Exekuzioa 2023 (3)
Trenbide-azpiegiturak	1.563 M€	527 M€	424 M€
Portuetako azpiegiturak	102 M€	32 M€	16 M€
Osasun-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	323 M€	133 M€	163 M€
Azpiegitura hidraulikoak	120 M€	34 M	34 M€
Etxebizitza-azpiegiturak	285 M€	97 M€	124 M€
Hezkuntza-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	451 M€	137 M€	136 M€
Kultur azpiegiturak	132 M€	36 M€	35 M€
1. POLITIKA, GUZTIRA	2.976 M€	996 €	932 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2023ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA: ZTBP 2030 (urteko % 6ko aurrekontu-hazkundera)

LIDERGO TEKNOLOGIKO-INDUSTRIALA

Ikerketa teknologiko-industrialia indartzen jarraitzen da, enpresa-sektorerako I+G proiektuei laguntzeko programen deialdietara bideratutako baliabideen bidez (Hazitek eta Elkartek). Azpiegitura zientifiko-teknologikoei laguntzeko Azpitek 2023 programa ere onartu da. 2023ko ETE Planaren barruan, "Industria Digitala" programa nabarmentzen da. Programa horren helburua da euskal enpresen lehiakortasuna bultzatzea, teknologia digitalak eta ijasagarriak ezarriz.

Teknologia- eta industria-arloan, Eusko Jaurlaritzak funtsezko hainbat ekimen bultzatu ditu, besteak beste, "Bidasoa Bidco SA" enpresarena, kable-lineak zuntz optiko bihurtzea helburu duena, eta industria-berrikuntza sustatzeko "Smart Industry" eta "Cloud" programak.

Basque Quantum Batzorde Estrategikoaren bilera nabarmendu behar da. Proiektu horren helburua da Euskadi sendotzea Europako hegoaldean teknologia kuantiko aurreratuenen erreferente gisa. Saioan, Basque Quantum proiektuaren mugariak aztertu ziren, eta nabarmendu zen lehen sei hilabeteetan ekintza-arlo guztiak arrakastaz hasi zirela ezartzen, eta zentro kuantiko berria 2025ean abian jartzea aurreikusi zela. Ildo horretan, IBMk Donostia aukeratu du seigarren ordenagailu kuantikoa instalatzeko. Aldi berean, ordenagailu kuantiko hori hartuko duen Ikerbasque eraikin berriaren obrek ere aurrera egingo dute, eta eraikin berriaren eraikuntza 2025eko lehen seihilekoan amaituko dela aurreikusten da.

Aurrera doa ADI Data Center proiektua, eremu atlantikorako lehen mailako datu-zentro handia. Zentroaren lehenengo harria jarri da Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeko Ezkerraldea-Meatzaldea campusean, Abanto-Zierbenan.

BERRIKUNTZA IREKIA

Regional Innovation Scoreboard-ek (RIS 2023) "berrikuntza handiko" eskualdeen taldean finkatu du Euskadi, 21 postu igo eta 239 eskualderen sailkapenean 72.era iritsi ondoren, eta "eskualdeko bikaintasun-polo" kalifikatzaileari eutsi dio. Ikerketa eta Garapenean Euskadi autonomia-erkidegoen buruan dago, eta, arlo horretan, BPGaren gaineko inbertsioaren % 2,32ra iristen da Eurostaten arabera, Europako batezbestekoaren gainetik (% 2,27) eta Espainiako Estatukoaren oso gainetik (% 1,43). 2023an, Eusko Jaurlaritzak % 12 handitu ditu I+G+B babesteko partidak, 658,5 milioi eurora iritsi arte, zifra errekorra.

BIKAINASUN ZIENTIFIKOA

Abian da Ibaeta-Donostia campusean 6.000 metro koadroko eraikin berri bat eraikitzeko proiektua, EHUko bikaintasuneko oinarrizko ikerkuntzarako. Eraikinak 80 laborategi izango ditu. Guztira 300 ikertzailek jardungo dute bertan, funtsezko ikerketa-eremuetan ari direnak, hala nola konputazio kuantikoan, neutronikoan, superkonputazioan, kimika aurreratuan, material berrietan eta polimeroetan. Alor horiek guztiak Gobernuak onartutako IKUR estrategian sartuta daude.

TALENTUA

Talentu zientifikoa erakartzen laguntzen jarraitzen da, Ikerbasqueren eta ERC Fast Track, Research Fellows, Research Associate eta Research Professor programen bidez. Era berean, Bikaintek 2023 programak aukera eman du euskal enpresa eta zentro teknologikoetan profesional teknologoak sartzeko, doktorego industrialak egiteko. Ikertzaile gazteen prestakuntzarako laguntzei ere eutsi zaie Postdoc eta Predoc programen bidez, eta nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektorerako IkerTalent programa indartu da.



2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

Taula honetan, 2023an ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzeko exekutatutako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

2. politika. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2023 (2)	Exekuzioa 2023
Ikerketa zientifikoa eta unibertsitatekoa (*)	784 M€	187 M€	164 M€
Ikerketa teknologikoa eta industrial	1.016 M€	266 M€	292 M€
Elikaduraren ikerketa eta garapena	119 M€	30 M€	34 M€
Osasun-ikerketa (*)	265 M€	62 M€	66 M€
Berrikuntza publikoa eta Administrazio digitala	107 M€	24 M€	24 M€
Berrikuntzako Funts Estrategikoa	221 M€	53 M€	32 M€
2. POLITIKA, GUZTIRA	2.512 M€	622 M€	612 M€

(*) Unibertsitate- eta osasun-ikerketan diharduten langileen gastuak barne hartzen ditu

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2023ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

EUSKADIKO ENERGIA ESTRATEGIA, INGURUMEN ESTRATEGIA ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIA

2023an, Euskadiko V. Ingurumen Esparru Programa 2030 onartu da, eskualdeek epe luzerako jasangarritasunarekiko duten konpromisoa indartzeko. Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legea ere onartu da, deskarbonizazio-prozesua azkartzeko, erantzukidetasunaren bidez.

ENERGIAREN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA

Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak 2030erako Jarduketa Energetikoaren Plana onartu du. Plan horretan, Euskadiko sektore publikoko energia-jarduketako unitate guztiek bete beharreko ildo zehatzak jasotzen dira, 4/2019 Legean jasotzen diren helburuak, nahitaez bete beharrekoak, lortzeko. Gainera, batzorde horrek Kontingentzia Energetikoaren Planari jarraipena ematea erabaki du, kontsumoak Europako gomendioen gaintetik murrizteko. Basque Net Zero Industria Superkluster ekimena abian jartzen jarraitu da, EAEko kluster eta enpresa nagusiek zero emisio netoko helburuak lor ditzaten 2050ean. Bestalde, Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planak aurrera egiten jarraitzen du, oso modu positiboan. Planean proposatutako 15 ekimenen aurrerapen-maila % 49koa da, eta horrek adierazten du ia haren erdia bete dela, indarrean daraman urte eta erdian. Gainera, 2023an, Euskadin inbertsioak egiten dituzten enpresek Deskarbonizazio Industrialerako laguntzen programa ere izan dute, berotegi-efektuko gasak murrizteko instalazioetan inbertsioak sustatzeko helburua duena.

ONDAREA ZAINTEA ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKA BORROKATZEA

"Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plan Estrategikoa" eta "Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa" gauzatzen ari dira. Klima-aldaketara egokitzeko EAEko misioa hedatzen jarraitu da, Europako "Regions4Climate" programaren esparruan. Proiektu horren barruan, Txingudiko badia leheneratzeko obrak hasi dira. Bestalde, Urban Klima 2050 proiektuaren barruan egindako egokitzapen-ekintzak COP 28an aurkeztu dira.

ENERGIAREN ELEKTRIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzaren eraikinen energia-birgaiketan jarraitzen da eta energia elektriko % 100 berriztagarria erosi da eguneroko kontsumorako.

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO ETA ADIMENDUNERAKO LEHENTASUNA

Mugikortasun Elektroaren Euskal Estrategia ezartzeko prozesuan dago gaur egun, 2030era arteko inbertsio planifikatua baitu. Gainera, Legebiltzarrak 2023ko azaroaren 9an 11/2023 Legea, Mugikortasun Jasangarriarena onartu zuen, Euskadiko gizartea egituratuko duen garraio-sistema iraunkor eta moderno bat lortzeko oso arau garrantzitsua. Legeak mugikortasun jasangarria planifikatzeko tresnak arautzen ditu, eta foru- eta toki-erakundeek ingurumena errespetatzen duen mugikortasunaren aldeko fiskalitatea garatzeko oinarriak ezartzen ditu. Garraio eta mugikortasun eraginkorreko inbertsioetarako laguntzen 2022-2024 Moves Programa babesten jarraitu da

INGURUMENAREN BABESA

Ingurumena babesteari dagokionez, Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaz Lucia meategiko asfalto naturalen meatze-paisaiak berreskuratzeko baterako inbertsioan islatzen da. BIOTERRA azokan, Eusko Jaurlaritzak Basque Green Deal ekimena aurkeztu du, garapen ekonomikoaren jasangarritasunari buruzko dibulgazio- eta sentsibilizazio-ahaleginen barruan. Tokiko erakundeentzako laguntza-programa bat ezarri da, garapen jasangarria sustatzeko, natura-ondarearen kontserbazioan arreta berezia jarrita, dagokion leerroaren bidez, bai eta enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko programa ere.



3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

EUSKADIKO ENERGIA ESTRATEGIA, INGURUMEN ESTRATEGIA ETA EKONOMIA ZIRKULARREN ESTRATEGIA

ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA

Otsailean, Santurtziko San Jorge Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak TELKI Green Hydrogen Lab inauguratu zuen. Azpiegitura berritzaile horrek ekipamendu fotovoltaikoa eta eolikoa erabiltzen du uretatik hidrogeno purua ekoizteko.

Jasangarritasunaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak hainbat laguntza-programa abiarazi ditu, industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-auditoretza integralak egiteko programa bat barne. Gainera, garapen jasangarria sustatzen duten tokiko erakundeei laguntzeko programak ezarri dira, honako gai hauei heltzeko: lurzoru kutsatuak, klima-aldaketa, ekonomia zirkularra, tokiko ekoberrikuntza eta Asteklima ildoak. Era berean, Basque Ecodesign Center-ek «Ingurumen-zaintza estrategikoari buruzko txostena: ekonomia zirkularreko 10 gakoak 2024rako» aurkeztu zuen.

Basque Volt proiektua jarri da abian, Zamudioko teknologia-parkean belaunaldi berriko baterien gelaxkak fabrikatzeko. Basque Volt egoera solidoko gelaxkak egiten dituen Europako lehen faktoria erraldoia izango da, 700 M €-ko aurreikusitako inbertsioarekin eta 800 enplegu zuzen baino gehiagorekin. Lehenengo ekoizpen-lerroa 2025erako dago aurreikusita, fabrikazio normalizatuan hasi eta bi urtera.

Toki-erakundeentzako laguntzen programak ere garapen jasangarria sustatzen duten ekintza espezifikoak bultzatzen ditu, jasangarritasunerako hezkuntzan eta lurzoru kutsatuen kudeaketan arreta berezia jarrita. Gainera, ingurumen-boluntariotzako proiektuetarako dirulaguntzen programa bat abiarazi da, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek gauzatutako ekimenak babestuz.

BERRIZTAGARRIAK BULTZATZEA, TEKNOLOGIA BERRIAK INTEGRATUZ

Euskadik Europako energia-sektorean duen posizioa sendotzen eta hobetzen jarraitzen du. Ildo horretan, Energy Intelligence Center hartzen duen eraikina eta Euskadiko Parke Teknologikoetako Abantoko campus berriaren egoitza inauguratu dira. Instalazioek espazio bat eskaintzen diete enpresei trantsizio energetikoari lotutako teknologia aurreratueta I+G+b proiektuak garatzeko. Instalatu diren lehenengo enpresak Petronor, AMPO, Tubacex, Tubos Reunidos eta Vicinay izango dira.

Energia berriztagarrien garapenaren esparruan, aipatu behar dira Aixelindar sozietateak (Energiaren Euskal Erakundeak eta Iberdrolak osatua) eraiki nahi dituen parke eolikoak 2025ean martxan jarriko direnak.

Bestalde, Ekiola Mendialdea eguzki-parkea energia ekoizten hasi da. BEC SOLAR SL Bitarteko Propioak 900 kW-ko eguzki-energia fotovoltaikoko instalazio bat jarri du martxan, eta soberako produkturik gabeko autokontsumoaren eskemaren azpian, BEC elektrizitatez hornituko du.

Gainera, EEEK itsas energia berriztagarria bultzatzeko konpromisoari eutsi dio, pizgarri-programa baten bidez, itsasoko energia berriztagarrien esparruan sortzen ari diren teknologiak erakusteko eta baliozkotzeko inbertsioak babesteko.

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

Taula honetan, 2023an energia- eta ingurumen-trantsizioa sustatzeko exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2023 (2)	Exekuzioa 2023 (3)
Trantsizio energetikoa	215 M€	165 M€	81 M€
Ingurumenaren babesa eta klima-aldaketaren aurkako borroka	142 M€	44 M€	44 M€
3. POLITIKA, GUZTIRA	357 M€	209 M€	125 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2023ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

INDUSTRIA GARATZEKO ETA NAZIOARTEKOTZEKO 2021-2024 PLANA (2021ean onartua)

TRANSIZIO TEKNOLOGIKOA ETA DIGITALA. BASQUE INDUSTRY 4.0

Industria Digitala 2023 laguntza-programaren b. Industria Digitala 2023 laguntza-programaren bidez, industria-ehunaren eraldaketa digitala eta automatizazioa bultzatzen jarraitu da industria-enpresen eta industriako produktu-prozesuari lotutako zerbitzuetako enpresen barne-prozesuetan eta bezeroekikon, hornitzaileekikon eta administrazioekiko harreman-prozesuetan Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (EIKT) txertatzen laguntzeko, enpresaren lehiakortasuna hobetze aldera.

ETE-EN BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZA

Legegintzaldian zehar, Eusko Jaurlaritzak 2021, 2022 eta 2023 ekitaldietako ETEei laguntzeko planak onartu eta ezarri ditu. Plan horien bidez, honako hauen aldeko apustua sustatu da: teknologia eta berrikuntza; eraldaketa digitala; ekintzailtza; industria-garapena eta inbertsioa; nazioartekotzea; deskarbonizazioa, bioekonomia, energiaren, ekonomia zirkularra, bai eta ingurumenarekin eta hondakinen kudeaketarekin lotutako enpresa-proiektuen aldeko apustua ere.

2023ko ETEei laguntzeko planak 83 laguntza-programa jasotzen ditu ETEentzat, enpresa-dinamismoari eusteko, eta, aldi berean, trantsizio digitalean, energetikoan eta ingurumenekoan aurrera egiteko, proiektu eraldatzaileen bidez (I+G+B, inbertsioaren % 70), arreta berezia jarritz deskarbonizazioan.

Era berean, nabarmentzekoa da "Innobideak – Inno konexio" eta "Hazinnova" programen urteroko deialdia, ETEentzat. Deialdi horren bidez, 321 ETEk bat egin dute EAEko berrikuntza-ekosistemarekin.

KRISIAN DAUDEN SEKTOREEI LAGUNTZEA ETA AZPIEGITURAK INDARTZEA

Trantsizio teknologiko-digitalari eta energetiko-ingurumenekoari aurre egiteko zailtasunak dituzten edo berregituraketa-premiak dituzten enpresei emandako laguntzak aurrera jarraitzen du, Indartu, Bideratu Berria, Bideratu COVID-19 eta Lortu programen bidez.

INDUSTRIA GARAPENA, RESHORING ETA SENDOTZEA

Enpresen kapital-egituraren sendotasuna babesten jarraitu da, Finkatuz funtserako zuzkidura 40 M €-tan handituta; horrela, 300 M €-ko kapitala lortu da. Funts hori 2021ean jarri zen abian, eta orain arte hiru enpresatan hartu ditu partaidetzak: ITP Aero, CAF eta Kaiku. Inbertsioa 104 milioi eurokoa izan da.

Era berean, Elkargi elkarren bermerako sozietatearen mailegularro berria gauzatzen ari da, abantaila-baldintzetan, 2023an abian jarritako industria bultzatzeko.

Next Generation proiektuaren zuzkidurak % 50 egin du gora 2023ko ekitaldian, eta 2.339 milioi eurora iritsi da.

ZERBITZU AURRERATUAK ETA SORMEN-INDUSTRIAK

Basque Circular Hub-en zerbitzu aurreratuak babesten jarraitu da, ekonomia zirkularreko zerbitzu aurreratuen lehen zentroa Euraopako hegoaldean (Ekodiseinuko Gela, Basque Ecodesign Center-eko Ideien Laborategia eta Basque Ecodesign Hub).

HEALTH-KLUSTERRA INDARTZEA

Euskadin osasun-sektorea garatzeko konpromisoa osasun-sektorearen eta teknologia- eta enpresa-sektorearen arteko lankidetzan indartzean islatu da. 2023an, osasuneko I+Gko zeharkako lau proiektu traktore handi eta lankidetzan oinarritutakoak diseinatzeko laguntzak onartu dira, zahartze osasungarriaren esparrukoan. Gaur egun, 3.000 ikertzaile baino gehiago ari dira lanean, eta 1.700 proiektu daude abian Euskal Osasun Sistemari; horietatik 900 ikerketa-proiektuak dira.



4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

INDUSTRIA GARATZEKO ETA NAZIOARTEKOTZEKO 2021-2024 PLANA (2021ean onartua)

NAZIOARTEKOTZEARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK INDARTZEA

Nazioartekotzeko Euskal Agentziak nazioarteko merkatuei buruzko argitalpenen edukia eguneratzen jarraitzen du, baita enpresentzako informazio sektorial interesgarria eta Nazioarteko Behatokiaren informazioa ere.

Basque Trade and Investmenten kanpoko sareak 21 bulego propio ditu gaur egun, 2022ko apirilean Tokion irekitakoa barne, eta 70 herrialdetan baino gehiagotan du ordezkariak.

Enpresak nazioartekotzeko prozesuek Zabaldu, Sakondu, Elkartu edo Gauzatu Internacional laguntza-programak izan dituzte.

KANPOKO INBERTSIO PUBLIKOKO PROIEKTU PILOTUAK

Pilotu laguntza-programa bultzatzen jarraitu da. Programa horren helburua da nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuak garatu behar dituzten enpresei laguntzea. Proiektu horiek egiteko moduak, metodologiak eta proposamen berritzaileak probatu behar dituzte, eskala mugatu batean egin behar direnak eta, agian, bolumen handiagoko proiektuetan lortutako esperientziatik abiatuta errepika daitezkeenak.

NAZIOARTEKO BAT-EGITEAK ETA ESKURATZEAK BULTZATZEA

Merkatu-adimeneko tresnek euskal enpresa-taldean hazteko eta sendotzeko aukerak identifikatzen lagundu dute, nazioarteko bat-egiteei eta eskuratzeei lotutako inbertsioak babestuz.

BASQUE COUNTRY MARKA FINKATZEA

Lehendakariak Japoniara egindako bisita ofiziala nabarmendu behar da, Tokyoko Basque Week-ekin bat. Horren helburua Euskadi Basque Country herrialde hartan sustatzea da, Euskadi Basque Country 2025 Estrategian lehentasunezko herrialdeztat hartzen baita. Bilerak egin ziren energia-misioaren parte diren enpresekin eta Business Leader Summit-en parte hartzearekin, energiaren, haize-energiaren eta hidrogenoaren sektoreko euskal enpresen proiektu arrakastatsuak bertatik bertara ezagutzeko.

Euskadik, Galiziak, Asturiasek eta Kantabriak Ardatz Atlantikoa bultzatzea proposatzen dute, eta, horretarako, Makroeskualde Atlantikoa sortzea. Eskualde atlantikoa artikulatu, kohesionatu eta ikusgarri egingo duen eta gobernu-maila guztiek parte hartuko duten lan- eta topaketa-foroa. Agenda komunak, besteak beste, honako gai hauek biltzen ditu: trenbide-sarea, hidrogenoaren korridorea, klima-aldaketari emandako erantzuna eta espezializazio adimendunaren aldeko apustua.

Lehendakaria Frantziako eta Portugaleko enbaxadoreekin bildu da Makroeskualde Atlantiko bat eratzeke eta abiadura handiko konexioak arintzeko beharra azaltzeko. Halaber, Euskadi Arku Atlantikoko Batzordearen Batzarraren buru izan zen. Bertan, Europari Makroeskualdeari abala emateko eskatu zitzaion, eta haren lehentasunak eta gobernantza-eredua zehaztu ziren.

TALENTUA GARATZEA ETA ERAKARTZEA

Ekonomia ireki baten erronkei aurre egiteko trebetasun profesionalak eta sozialak dituzten gizabanakoen garapena sustatzea da oraindik ere Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren helburu nagusietako bat. Ildo horretan, Euskadik etengabe indartzen du bere talentua, nazioartekotzeko bekak aldizka deituta, hala nola Beint International eta Global Training.

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

Taula honetan, 2023an industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea sustatzeko exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2023 (2)	Exekuzioa 2023 (3)
Industria-garapena: Basque Industry 4.0, ETEei laguntzea, <i>reshoringa</i> eta sendotzea, krisian dauden enpresei laguntzea, zerbitzu aurreratuak eta sormen-industriak, eta Health Cluster indartzea.	1.004 M€	160 M€	161 M€
Enpresentzako maileguren finantza-kostua murriztea (COVID-19)	53 M€	-	16 M€
Enpresek parte hartzeko inbertsioak (FEI) (*)	-	241 M€	28 M€
4. POLITIKA, GUZTIRA	1.164 M€	401 M€	205 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2023ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

(*) Enpresa-partaidetzek aurrekontu-estaldura bermatua dute, aztertzen ari dira eta ekitaldi honetan gauzatzea aurreikusten da

5. politika. Elikagaien industria

NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN ERAKUNDEARTEKO PLAN ESTRATEGIKOA. EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA

BELAUNALDI-ERRELEBOA

Euskadin elikaduraren sektorean belaunaldien arteko erreleboa sustatzeak laguntza-programen bidez jarraitzen du, belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko eta elikakatean erantzukizuneko postuak dituzten pertsonak gaitzeko.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ETA JASANGARRIA

2023an, azpisektore berritzaileen garapena bultzatu da, digitalizazioa eta ikerketa-zentroetatik (AGRITECH) nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorerara lekualdatzea sustatuz, bai eta nekazaritza-sektoreak karbono-aztarna murrizteari, sektore ekoizlea nekazaritza ekologikora igarotzeari, animalien ongizateari eta landare- eta abeltzaintza-osasunaren kontrolari eta prebentzioari egiten dion ekarpena ere.

Era berean, "Baserriaren 2022-2026 aldirako Ikerketa Plana" bultzatu du, ELIKA fundazioarekin batera, elikadura segurua, osasungarria eta jasangarria lortzeko bitarteko gisa.

AKUIKULTURA SUSTATZEA

Akuikulturaren sustapena bultzatu da, kalitate handiko praktika espezializatuak sustatuz, onartu berri den Euskal Akuikultura 2030 Planean ezarritako jarraibideekin bat etorritz.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Euskadin elikagai-enpresen lehiakortasuna sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak hainbat laguntza-programa abiarazi ditu. Lehiatu Inbertsioa programaren bidez, nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzatik eta akuikulturatik eratorritakoak eraldatzeko eta merkaturatzeko laguntza ematen da. Programa hori EAEko elikakatearen eta basogintzaren sektore guztiei zuzenduta dago, eta produktu berriak garatzeko inbertsioak finantzatu dira.

Era berean, elikadura-katean digitalizazioa sustatzen da, lehiakortasuna hobetzeko programa espezifiko baten bidez. Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren esparruan ardoa ekoizten duten upategiei babes emateko, laguntza-programa bat ezarri da, eta, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan, aldi baterako salbuespenezko laguntzak bideratu dira Arabako mahastizaintza-sektorerako, lehiakortasunari eusteko eta errentagarritasun-galera arintzeko. Ekimen horiek islatzen dute Jaurlaritzak elikagaien sektorearen hazkundearekin eta jasangarritasunarekin duen konpromiso integrala.

ARRANTZAKO EUROPAKO FUNTSAREN PROGRAMA ERAGILEA

BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA TALENTUA ERAKARTZEA

Arrantza-sektorerako ezohiko laguntzen programa izapidetzen ari da 2023an, lehiakortasunari eusten laguntzeko eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoak arintzeko.

2023an, FEMParen Europako funtsen programazio-aldi berrirako prestatzen (2021-2027), lana Europako jarraibideen arabera bideratu zen, EAEko tokiko errealitatera egokিতuta. Ardatzetako bat arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako pertsonak gaitzea eta prestatzea izan da.

ARRANTZATEGI JASANGARRIAK

Europako gidalerroen arabera bideratutako eremu horretako lana hainbat ardatzetan bideratu zen, besteak beste, arrantza-baliabideen kudeaketa eta kontserbazioa hobetzea, arrantza-flotaren egokitzapen jasangarria, sektorearen lehiakortasuna handitzea eta arrantza-udalerriak garatzea, enplegua sortzeko eta tokiko ekonomia "hazkunde urdinerantz" dibertsifikatzeko ikuspegi parte-hartzaileen bidez.

DIBERTSIFIKAZIO EKONOMIKOA

Enpresa-dinamismoa bultzatzen jarraitzen da, ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak hobetzeko proiektuei lagunduz, Leader, Erein edo Itsaspen programen bidez.



5. politika. Elikagaigintza

Taula honetan, 2023an elikagaigintza aktibatzeko exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

5. politika. Elikagaigintza	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2023 (2)	Exekuzioa 2023 (3)
Nekazaritza eta Landa Garapena (<i>from farm to fork</i>)	385 M€	94 M€	114 M€
Arrantza	100 M€	28 M€	21 M€
Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	128 M€	60 M€	70 M€
5. POLITIKA, GUZTIRA	613 M€	182 M€	205 M€

1. oharra: XII. legegaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2023ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

6. politika. Merkataritza eta Turismoaren eta Kulturaren Industria

MERKATARITZA. MERKATARITZA ESTRATEGIA 2030

"Merkataritza 2030" Euskal Merkataritzaren Estrategia onartu da. Estrategia horrek ildo estrategikoak ezartzen ditu, merkataritzari aukera ematen diotenak mundu digitalera egokitzeko eta bertan parte hartzeko, bai orainari bai etorkizunari aurre egiteko negozio-eredu berriekin, lehiakortasuna handitzeko.

KUALIFIKAZIOA ETA BERRITZEA

2023an, Euskadiko merkataritza-, ostalaritza- eta ostatu-sektoreetan enpresa-jarraitutasuna babesten jarraitu da, Berriz Enpresa programaren bidez. Enpresen transmisioa erraztu nahi du, modu neutral, garden eta fidagarrian, informazioa eta aholkularitza emanaz. Batetik, negozioen jarraitutasuna bilatzen du, eta, bestetik, ekintzaile eta inbertitzaileei martxan dauden negozioak eskuratzeko aukera eskaintzea.

DIGITALIZAZIOA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

Apirilaren 27ko 4/2023 Legea onartu da, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena, kontsumitzaileen eskubideak merkataritza digitalaren forma berrien aurrean babestea bermatzen duena.

MERKATARITZAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Merkataritza-sektoreari babesa ematen jarraitu da, Bono Denda programaren bidez eskaria bultzatuz. Azaroan, Euskadi Bono Dendaren bosgarren kanpaina hasi da, eta 5.222 establezimenduk hartu dute parte. Era berean, hiri-merkataritzaren dinamizazioa eta lehiakortasuna hobetzeko Hirigune programari eutsi zaio. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Next Generation EU funtsak jaso direla tokiko merkataritza babesteko, udal-merkatuak modernizatzeko 7 proiektu bultzatuz.

TURISMOA ETA OSTALARITZA. TURISMO JASANGARRIAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030

2030erako Turismo eta Merkataritzako Plan Estrategikoa aurkeztu da, EAEko turismoak eta merkataritzak hamarkada honetan dituzten erronkei eta desfioei aurre egiteko ibilbide-orria, eta Euskadiko Turismo Baliabideen Lurralde Plan Sektoriala egiteko prozedura hasi da.

JASANGARRITASUNA, ERANTZUKIZUNA ETA BIKAINTRASUNA

Arabako Errioxako Turismo Jasangarritasuneko Plana aurkeztu da, Euskadiko Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planaren barruan. 2023an, zuzeneko hamar dirulaguntza eman zaizkie Helmugan Turismo Jasangarritasuneko Hirugarren Plana (2023) eta Eguzki eta Hondartzat-Turismo Urdineko Plan Nazionala (2023) gauzatzeko ardura duten toki-erakundeei, bai eta horiek instrumentalizatzeko erakunde onuradunekin sinatu beharreko hitzarmen eredu baimentzeko ardura dutenei ere. Erakunde onuradunekin sinatuko den eredu hitzarmenaren baimena ere eman da, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan ezartzeko. Gainera, nabarmendu behar da Euskadiko hiru eskualde direla Espainiako Helmuga Turistiko Adimendunaren bereizgarria jasotzen lehenak.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Lehiakortasun Turistikoko Programa (CTP) ezarri da, Euskadin jarduera turistikoa bultzatzeko eta biziberritzeko hainbat ekimenez osatua. Programa honek turismo-produktuak diseinatzea eta gauzatea, sustatzea eta merkaturatzea babesten du, bai eta "Euskadi - Basque Country" marka turistikoa proiektatzen laguntzen duten ekitaldiak ere. Aldi berean, laguntza-programa bat abiarazi da euskal helmugen kalitatea eta erakargarritasuna hobetzea helburu duten proiektu turistikotarako, dinamismoa, banaketa eta fluxu turistikoa berriak sortzeko. Gainera, zuzeneko dirulaguntzak eman dira Donejakue Bidean zehar erabilera turistikoa duten interes kultureko 14 ondasun birgaitzeko. Ekintza horiek sendotu egiten dute sektore turistikoa lehiakortasuna, helmugen kalitatea ziurtatuz eta Euskadiren erakargarritasuna indartuz bikaintasuneko helmuga turistikoa gisa.



6. politika. Merkataritza eta Turismoaren eta Kulturaren Industria

KULTURA-INDUSTRIAK. EUSKADI SORTZAILEA

Basque District of Culture and Creativity (BDCC) programaren jardura eta kultura- eta sormen-industriak sustatzeko estrategia bultzatu dira, kultura- eta sormen-industrien berrikuntza-funtsaren KSIgune klusterraren bidez (KSI Berritzaile+ programa).

MERKATARITZAREN, TURISMOAREN ETA KULTURAREN ARTEKO SINERGIAK BULTZATZEA

Merkataritza-sektoretik sortzen diren lankidetzeta-sinergiak bultzatzen jarraitu da, beste sektore batzuetako eragileekin lankidetzan eta koordinatuta, Hiria 3.1 bezalako programen bidez.

Apustu hori indartu egin da 2023an, Merkataritza eta Turismoko Plan Estrategikoa onartuta.

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

Taula honetan, 2023an merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria berraktibatzeke exekutatuak aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2023 (2)	Exekuzioa 2023 (3)
Turismoa eta ostalaritza	84 M€	21 M€	20 M€
Merkataritza	76 M€	22 M€	22 M€
Kulturaren industria	153 M€	37 M€	39 M€
6. POLITIKA, GUZTIRA	313 M€	80 M€	81 M€

1. oharra: XII. legegaldirako (2020-2024) kalkulatuak aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2023ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.



II. ardatza – Enplegua sortzea

2023ko Berpiztu Programa

- 7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak
- 8. politika. Enplegurako prestakuntza
- 9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
- 10. politika. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza
- 11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintza
- 12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana



7. politika. Ekintzailtza. Enpresa berriak

EKINTZAILTZARAKO ERAKUNDEARTEKO PLANA 2021-2024

MIKROETE ETA AUTONOMO SORTU BERRIAK

Lanbidek 2022an abian jarritako Mikroekintzailtza eta Autoenplegua Babesteko Plana edatzea. Autoenplegua eta enpresa berriak (mikroETEak) sortzea sustatzen jarraitu da, ekintzaileentzako laguntzen bidez, prozesu ekintzailearen fase guztietan. Programa horien artean daude, besteak beste, laguntza ekonomikoa, lagun egitea eta tutoretza, eta langabeziaren kapitalizazioa. Bestalde, "Oreka eta ekitatea, ekintzailtza eta mikroenpresak lortzeko lurralde-proiektu berriak" programaren deialdia egin da.

ENPRESA-PROIEKTU BERRIAK

Enpresa-proiektu berriak bultzatzen jarraitu da, 2024ko Erakundearteko Ekintzailtza Plana gauzatzuz. Programa garrantzitsuenen artean, nabarmentzekoa da Gauzatu Berria, oinarri teknologikoko enpresa-proiektu berritzaileak sustatzera bideratua, inbertsioaren eta enplegu-sorkuntzaren aldeko apustua egiten duten ETE industrialentzat. Beste programa nabarmen bat Barnekintzaile da, enpresen barruan sortutako barne-ekintzailtza proiektuen garapena sustatzeko (negozio-ildo berriak, produktuak eta zerbitzuak).

NAZIOARTEKO STARTUP DIRELAKOAK ERAKARTZEA

Euskal enpresen eta startupen arteko interakzioa sustatzea, berrikuntza-proiektuak garatzea eta Euskadin ezartzea, oraindik ere, talentua eta nazioarteko startupak erakartzeko apustua da. Bind 4.0 berrikuntza-plataforma irekia ekimen garrantzitsuenetako bat da oraindik ere. 2023ko ekitaldi honetan, zortzigarren deialdia egin da, eta mundu osoko 76 herrialdeetako 777 startupek eman dute izena. Era berean, "SME Connection" programaren bigarren edizioa abiarazi da, EAEko ETE industrialen eraldaketa digitala sustatzeko.

Bestalde, Up! Euskadi plataformak jardunean jarraitzen du startupek eta ekosistemako eragile guztiei ikusgaitasuna emateko, Euskadi ekintzailtza aurreratuko Hub gisa posizionatuz.

ENPRESA BERRITZAILTE BERRIAK

ETE teknologiko eta berritzaile berriak sortzeko laguntza hainbat programa eta zerbitzu integralen bidez gauzatu da. Horien artean, nabarmentzekoak dira Ekintzaile programaren bidez emandako laguntza ekonomiko eta finantzarioak, Enpresa Berrikuntzako Zentroek (BIC) emandako laguntza espezializatua eta lagun egitea, baita emandako aholkularitza-, mentoring- eta coaching-zerbitzuak ere. Gainera, babes-neurriak ezarri dira nazioarteko merkatuetan sartzen laguntzeko.

ETE BERRIAK LEHEN SEKTOREAN, GIZARTE EKONOMIAN, MERKATARITZAN ETA TURISMOAN

Enplegua sortzeko potentziala duten sektore jakin batzuetan jarduera ekintzailea indartzeko, laguntza-programa espezifikoak izan dira. Gizarte-ekonomiaren eremuari dagokionez, ekintzailtza, lurralde-sustapen planifikatua eta gizarte-ekonomiako enpresen finkapena babestu dira. Gizarte Ekonomiaren Sailen arteko Lehen Plan Estrategikoa gauzatzen jarraitzen da. Plan horren helburuen artean ekintzailtza kolektiboa sustatzea dago, batez ere lan-sozietateak eta kooperatibak handituz.

Landa- eta itsasertzeko eremuan jarduera ekonomikoa sortzeko berriak laguntzak izan ditu Leader, Erein, Gaztenek eta Geroa programen bidez, dibertsifikazio-jarduerak sustatzeko, enpresa berriak sortzeko eta lehendik daudenak handitu eta modernizatzeko. Bestalde, merkataritzaren eta turismoaren sektoreek berriak laguntzak izan dituzte turismo jasangarriarekin eta tokiko kontsumoarekin lotutako enpresak sortzeko eta/edo lehendik dihardutenek lanean jarraitzeko.



7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak

Taula honetan, 2023an exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta ekintzailletzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2023ko aurreikuspena (2)		2023ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
MikroETEak eta autonomoak	26 M€	4.565	5 M€	1.005	4 M€	1.256
Elikagaien sektoreko enpresa berriak	13 M€	1.245	2 M€	274	2 M€	250
Gizarte-ekonomiako enpresa berriak	6 M€	747	4 M€	150	3 M€	443
Turismo- eta merkataritza-sektoreko enpresa berriak	8 M€	913	7 M€	840	5 M€	693
Enpresa berritzaile berriak	175 M€	3.320	21 M€	1.000	16 M€	531
7. POLITIKA, GUZTIRA	128 M€	10.790	39 M€	3.269	30 M€	3.173

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2023ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2023an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren..

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

8. politika. Enplegurako prestakuntza

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. 2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA

Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea onartu da. Horren bidez, Euskadin lehen aldiz garatu da autogobernua enplegu-politika aktiboetan, eragile guztien jarduna antolatu da, lan duina definitu da, eta diagnostikoa, orientazioa eta lan-prestakuntzarako sarbidea aitortu dira, herritartasun-eskubide berri gisa.

LANGABEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Enplegurako Lanbide Heziketaren esparruko prestakuntza-ekintzak garatzen jarraitzen dute (bi urtean behingo deialdia, 2022-2024), langile langabetuak birkualifikatzeko lan-merkatuak eskatzen dituen kualifikazioekin eta gaitasunekin bat etorriz.

Bestalde, prestakuntza-deialdi espezifikoak egin dira langile kualifikatuen eskari handia duten sektoreetan prestakuntza-jarduerei laguntzeko; konpetentzia profesionalak enplegu-nitxo berrien eremuan; eta gaitasun digitalak hobetzea, ekintzailtza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko.

Horrekin batera, landa- eta hiri-inguruneetako emakumeentzako prestakuntza-programak abian dira, baita biztanleria aktiboa prestatzeko eta birkualifikatzeko reskilling eta upskilling ekintzak ere, sektore estrategikoetako lanbide-kualifikazioei, pertsonen zaintzari eta despopulatzeko arriskuan dauden eremuei lotutakoak (langabeentzako eta landunentzako ekintzak).

NEKAZARITZA ETA ARRANTZAKO GAIKUNTZA

Prestakuntza-jarduerak egin dira nekazaritzako, itsasoko, arrantzako eta elikagaigintzako trebakuntza-sektoreetan, dagokion urte anitzeko deialdia ezarriz (2022-2024) eta Hazirekin kudeaketa-akordioak eginez. Programa horrek langabeei eta landunei zuzendutako prestakuntza-ekimenak aurreikusi ditu.

LANDUNAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Langile landunentzako prestakuntza 2022-2024 aldiko prestakuntza-eskaintzaren bi urteko deialdiaren bidez zabaldu da, langile landunen gaikuntza egokitzeko eta hobetzeko.

Bestalde, enpresek beren langileentzako prestakuntza-ekintza estrategikoak garatzeko laguntza izan dute (prestakuntza hobaridunaren kreditua agortu ondoren).

LAN-ORIENTAZIOA

Enplegurako orientazio-ekintzen eta -zerbitzuen deialdia gauzatu da, prestakuntza laneratze-ibilbide integral pertsonalizatuak diseinatzeko prozesuaren zati gisa lotzeko, enplegutik urrunen dauden pertsonen artea berezia eskaintzeko (2021-2023 biurteko deialdia).

Enplegurako Orientazio, Ekintzailtza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroa inauguratu da. Europako funtsek babestutako eta SEPEk sustatutako proiektu hori Lanbidek administratuko du, laneratzea eta kalitate handiko enplegua sortzea bultzatzeko ekimen berritzaileak sustatzeko helburuarekin.

KONTRATAZIO-KONPROMISODUN PRESTAKUNTZA

Enpresek prestakuntza-ekintza espezifikoak garatzeko laguntza izan dute, eta prestakuntza jaso duten pertsonen gutxienez % 50 kontratatzeko konpromisoa hartu dute, kualifikazio-osagarri espezifikoak behar duten okupazio-profilen premia zehatzei erantzuteko. Era berean, emakumeen kualifikazioa eta laneratzea babestu da lanbide maskulinizatuetan, prestakuntza- eta enplegu-programa espezifikoaren bidez, halako lanpostuak betetzeko gutxienez % 70 emakumeak kontratatzeko konpromisoarekin.



8. politika. Enplegurako prestakuntza

Taula honetan, 2023an exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegurako prestakuntzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

8. politika. Enplegurako prestakuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2023ko aurreikuspena (2)		2023ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Lan-orientazioko programak	35 M€	16.600	8 M€	4.400	10 M€	5.299
Nekazaritzako eta arrantzako trebakuntza-programak (elikadura-katea)	3 M€	519	1 M€	250	0,7 M€	300
Kontratatze konpromisoa berekin duen prestakuntza	14 M€	1.245	1,5 M€	275	0,7 M€	169
Langabeak laneratzeko prestakuntza	222 M€	23.736	54 M€	13.500	50 M€	12.267
Landunak birziklatzeko prestakuntza	68 M€	*	21 M€	*	19 M€	0
8. POLITIKA, GUZTIRA	342 M€	42.100	86 M€	18.425	81 M€	18.035

(*) Birziklatze-programek enpleguan egonkortasun eta kalitate handiagoa dute, baina zuhertasun-hipotesiengatik ez da aurreikusten enplegua zuzenean sortzea

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2023ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2023an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea. Era berean, kontuan izan behar da 2022ko aurreikuspenean enplegurako prestakuntzako jardueretarako zenbatetsitako laneratze-tasa murriztaileagoa zela (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45), eta, azkenean, hori aplikatu da 2023ko emaitzak kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. 2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA

TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen Programak urteroko deialdia izan du, enplegarritasuna hobetzeko eta langabeen kontratazioa sustatzeko. Horretarako, tokiko erakundeek enplegua sustatzeko jarduketak garatu dituzte, tokiko enpresek kontratazioa sustatu dute, eta laneratzeke laguntza eman da Eskualde behartsuei eta/edo lehentasunezko arreta-eremuei bultzada berria emateko plan berezia gauzaten jarraitu da (Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea eta Aiaraldea), horiek bultzatzeko ekintza espezifiko bidez, proiektu traktoreak dinamizatuz. Era berean, Debabarrena eskualderako jarduketa-plan berri bat diseinatu eta egin da. Horrez gain, HUB Oarsoaldea Urdina ekimena aurkeztu da, Ekonomia Urdinaren erronkak eta aukerak identifikatzeko espazio teknologiko lehiakorra – instituzionala eta enpresariala – sortzea helburu duena.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN KONTRATAZIOA

Desgaitasuna duten pertsonak laneratzeke konpromisoari eusten zaio, haiek lan-merkatu arruntean parte hartzea sustatzen duten programen bidez. Hori agerian geratzen da kontratazio mugagaberako pizgarrien urteko programan, lanpostuak haien baldintza fisiko, psikiko eta intelektualetara egokitzea errazten baitu; eta laguntza espezifikoak ematen zaizkie lenplegu lagunduko unitateei.

Lankidetzeta-hitza sinatu da APNABI-Autismo Bizkaia, Gaude, Euskal Autonomia Erkidegoko Down Sindromearen Fundazioa, Lantegi Batuak, Gureak Araba eta Gureak erakundeekin, desgaitasun intelektuala duten pertsonak Osakidetzako lanpostuetan sartzeko eta finkatzea helburu duena.

KONTZILIAZIOAN DAUDEN PERTSONAK ORDEZTEKO KONTRATAZIOA

Enpresei zuzeneko laguntza emateko urteko programaren bidez, lan- eta familia-bizitza bateragarri egitea bultzatu da, 164/2019 Dekretuaren babesean. Bestalde, Kontzilia sarea bultzatzen da, gai horretan kontzientziatutako enpresei laguntzeko gune gisa, esperientziak partekatuz eta banakako laguntza emanez.

ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

Enplegu Zentro Berezien jarduerak urriaren 29ko 168/2019 Dekretuaren babesa jasotzen jarraitzen du, desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko eta lanbide arteko gutxieneko soldataren % 50 eta % 55 artean betetzeko. Ildo beretik, Enplegu Zentro Bereziatako Lanbide Jarduerari Laguntzeko Unitateentzako laguntzak onartu dira. Unitate horiek talde multiprofesional gisa eratzen dira, desgaitasuna duten Enplegu Zentro Bereziatako langileek dituzten oztopoak gainditzen laguntzeko, baldin eta behargin horiek laneratzea oso zailak bada.

BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK LANBIDERATZEA ETA LANERATZEKO ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK

"Proiektu berezien" urteroko deialdiak lan-merkatuan sartzeko eta/edo irauteko oztopo handienak dituzten pertsonen gizareratzea eta laneratzea sustatzen jarraitu du. Hori lortzeko, prestakuntza, esperientzia praktikoa, laneratzeke aholkularitza, orientazioa, laguntza pertsonalizatua eta enplegarritasuna hobetzeko eta laneratzea errazteko beste neurri batzuk hartzen dira. Era berean, laneratzeke enpresek laguntza espezifikoak jaso dituzte beren jardueren sorrera eta iraupena babesteko. Era berean, zuzeneko dirulaguntzak eman zaizkie toki-erakundeek, EAEn BGDS eta/edo DSBE jasotzen duten pertsonekin gizareratzeke eta laneratzeke ibilbideetarako proiektu pilotu berritzaileak egin ditzaten, BEEP programaren esparruan.

IRAUPEN LUZEKO LANGABEAK KONTRATATZEA

Laneratzeke zailtasun handienak dituzten kolektiboak kontratatzeke pizgarrien ekimen espezifikoak bultzatzen jarraitzen da, hala nola 30 urtetik gorako langabeak, eta pizgarriak are handiagoak dira emakumeak eta 45 urteko edo gehiagoko pertsonak kontratatzeke

Era berean, berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien deialdia egin da, 45 urtetik gorako langabeei eta zaurgarritasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan daudenei zuzenduta.

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

Taula honetan, 2023an exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta laneratzearen eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2023ko aurreikuspena (2)		2023ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	174 M€	14.525	26 M€	2.165	20 M€	2.016
Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak laneratzea	18 M€	1.245	5 M€	630	6 M€	843
Iraupen luzeko langabeen laneratzea, sektore pribatuan kontratatzeko laguntzen bidez	6 M€	518	1,5 M€	195	1 M€	470
Lanertzeko programa espezifikoak enpresetan	58 M€	3.182	21 M€	714	24 M€	671
Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea enpresetan (kontratazio mugagaberako laguntzak + enplegu lagundua)	8 M€	830	2 M€	215	2 M€	222
Enplegu-zentro bereziak	258 M€	*	71 M€	*	72 M€	*
Laneratze-enpresentzako laguntzak	45 M€	*	11 M€	*	13 M€	*
Lan- eta familia-bizitza erantzunkidetasunez uztartzeak eragindako enplegua	10 M€	5.810	2 M€	1.550	1 M€	690
9. POLITIKA, GUZTIRA	577 M€	26.110	140 M€	5.469	139 M€	4.912

(*) Programa horiek desgaitasuna eta lanertzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enpleguaren egonkortasuna bermatzen dute, baina zuhurtzat jo da ez dutela enplegu berririk sortzen modu esanguratsuan.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2023ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2023an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.



10. politika. Renove programa. Eraikuntza birgaitzea

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. 2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA

RENOVE ERAIKUNTZA PROGRAMAK

Birgaitze- eta eraikuntza-jarduerak bultzatzeak garrantzi eta eragin berezia du, bai enplegua sortzeari dagokionez, bai ingurumenari eta gizarteari dagokionez. Ildo horretan, eraikinen parkea berritzeko eta hura birgaitzeko programen garapenak, energia-efizientziako irizpideak badituenak eta zero isurpeneko eraikinetarantz aurrera egin nahi duenak, suspertze ekonomikoaren eta jasangarritasunaren eragile garrantzitsua izaten jarraitu du, eta, aldi berean, lagundu egin du karbono-isuriaren neutraltasuna lortzeko Europako helburuan, Europako Itun Berdean eta Eusko Jaurlaritzaren Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenean 2050erako ezarritakoan.

2023an, birgaikuntza-programen garapena babesten jarraitu da eraikuntza-arloaren hainbat eremutan, sektore horren jarduera ekonomikoa eta lanpostu "berdeen" sorrera bultzatu dutenak, Europako jasangarritasun-irizpideekin bat etorriz. Jarduera nagusiak programa hauen bidez gauzatu dira:

RENOVE Etxebizitza: 2021-2023 aldirako Etxebizitza Plan Zuzentzailearen barruan, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze efizientea babesten jarraitu da, bizigarritasuna, segurtasuna eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko; horretarako, partikularrentzako eta jabe-erkidegoentzako laguntzen deialdia gauzatu da, eta eraikitn-ondarean esku hartzeko proiektuak egiteko laguntzen deialdia ere bai. Era berean, hiri-ingurunearen eta espazio publikoen irisgarritasuna hobetzera eta hirigintza- eta gizarte-arloko arazo bereziak dituzten eremuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketetara bideratutako berroneratze-jarduketak babestu dira. Kreditu globala handitu da diruzaintzako gerakinen kontura, 2023ko ekitaldiko kreditu-beharrei erantzuteko, bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsen finantzaketa osagarria esteltzea xede dutenak.

RENOVE Ikastetxeak: Ikastetxe publikoetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa) birgaitze-obrak egitea babesten jarraitu da, azpiegiturak egokitzeko edo berritzeko eta/edo eskolatzea dela eta, haiek handitu behar izanez gero. Obrak, batez ere, arkitektura-oztopoak kentzera, espazio eta instalazio jakin batzuk (ataripeak, estalkiak, jantokiak eta sukaldeak, aldagelak, kirol-eremuak, instalazio elektrikoak...) handitzera eta berritzera, suteen aurkako araudira egokitzera eta eraikin berriak eraikitzen bideratu dira.

RENOVE Osasun-zentroak: Osasun-zentro publikoak birgaitzeko eta birmoldatzeko jarduketak babestu dira, askotariko erreformak barne, bai eta azpiegituren, instalazioen eta irisgarritasunaren hobekuntza orokorra ere. Obrek, funtsean, honako ESI eta osasun-azpiegitura hauei eragin diete: Arabako ESIari; Debagoieneko ESIari; Donostialdeko ESIari; Goierri-Urola Garaiko ESIari; Bilbo-Basurtuko ESIari; Barrualde-Galdakaoko ESIari; Barakaldo-Sestaoko ESIari; Ezkerraldea Enkarterri Gurutzetako ESIari.



10. politika. Renove programa. Eraikinen birgaikuntza

Taula honetan, 2023an exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta Renove programaren eta eraikinen birgaikuntza-programaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

10. politika. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2022ko aurreikuspena (2)		2022ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Renove Etxebizitzak	143 M€	10.269	32 M€	2.556	33 M€	2.634
Renove Ikastetxeak	209 M€	3.752	69 M€	1.385	63 M€	1.254
Renove Osasun-zentroak	54 M€	979	20 M€	398	23 M€	460
10. POLITIKA, GUZTIRA	406 M€	15.000 (*)	121 M€	4.339	119 M€	4.348

(*) Zenbatespena, biderkatzaileetan oinarrituta. Renove Etxebizitza programaren kasuan, 4 aldiz biderkatzen da inbertsio publikoa (laguntza publikoko 1 € gehi inbertsio pribatuko 3 €, jabe bakoitzeko), eta, kopuru horren gainean, 0,6ko biderkatzailea aplikatzen da soldatara (enpleguak) bideratutako zatia kalkulatzeko, eta zatiketa bat 30.000 euroko enpleguen batez besteko soldata kalkulatzeko. Renove Ikastetxeak eta Renove Osasuna programen kasuan, inbertsioa guztiz publikoa da; beraz, batez besteko lansaria eta soldata biderkatzaileak baino ez dira hartzen kontuan.

- oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.
- oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2023ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2022an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.
- oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

11. politika. Enplegu publikoaren eskaintzak

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. 2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA

ENPLEGU PUBLIKOA

Enplegu publikoaren sektorea, zeinak kalitatezko enplegua sortzea eta hobetzea sustatzen duen, enplegu-emaile eraginkor eta efiziente gisa finkatzeak erronka izaten jarraitzen du administrazio publikoarentzat. Horretarako, belaunaldi-erreleboaren planifikazio egokia egiten jarraitu da, jakintza erakundeen barruan mantentzen dela bermatuta, eta enplegu publikoari lehentasuna ematen jarraitu da gizarte-politikekin (osasuna eta hezkuntza), funtsezko zerbitzuekin (segurtasuna, adibidez) eta zerbitzu orokorren beste eremu batzuekin lotutako eremuetan.

2023ko abenduaren 13ko Gobernu Kontseiluak EAEko Administrazio Orokorrerako eta haren erakunde autonomoetarako eta EAEko Hezkuntza Administrazioarako 2023ko lan-eskaintza publikoa onartu du. Gainera, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak eta Segurtasun Sailak onartutako eskaintzen berri eman dio Gobernu Kontseiluari.

Eskaintzak 3.300 plaza baino gehiago ditu, eta aurrerapauso handia da gobernuak euskal sektore publikoan enplegu publikoa sustatzeko duen helburuan. Horietatik 590 plaza EAEko Administrazio Orokorrari eta bere erakunde autonomoei dagozkie, 886 Hezkuntza Administrazioari, 1.265 Osakidetzari, 203 Justiziarari eta 376 Ertzaintzako agenteen kategorian sartzeko. Enplegu-eskaintza horien guztien helburua da Euskadiko sektore publikoak enplegua sustatzea, kalitatezko enplegua sortzeko eta hobetzeko konpromisoa duen erakunde gisa.

Ilido horretan, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak konpromiso hau betetzen du: aldian-aldian enplegu-eskaintzak egitea, kontsolidazio-prozesuak amaitu ondoren. Horrek, aldi berean, enplegu publikoko deialdien dinamika ekarriko du, gehienez ere hiru urteko epean.

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak

Taula honetan, 2023an exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegu publikoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2023ko aurreikuspena		2023ko exekuzioa (2)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Administrazio Orokorra	*	1.150	*	500	*	590
Osasuna	*	4.100	*	<i>A determinar</i>	*	1.265
Ertzaintza	*	1.900	*	<i>A determinar</i>	*	376
Hezkuntza	*	3.100	*	<i>A determinar</i>	*	886
Justizia	*	320	*	<i>A determinar</i>	*	203
Beste batzuk	*	150	*	<i>A determinar</i>	*	*
11. POLITIKA, GUZTIRA	*	10.720	*	500 (3)	*	3.320

(*) Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

1. oharra: XII. legegaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. 2023ko betearazpen-zifrak (enpleguak) aurrerapen-izaera dute, eta behin betiko betearazpenari buruzko datuak eskuratu ondoren berrikusi ahal izango dira. Datua 2023an onartutako plazei buruzkoa da (ez deialdiei buruzkoa).

12. politika. Gazte Enplegurako Talka Plana

ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030. 2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA

LANBIDE-HEZIKETA ETA UNIBERTSITATE-HEZIKETA DUALA

Prestakuntza dualaren eredia bultzatzen jarraitzen da unibertsitate-eremuan eta lanbide-heziketan, 2022-2026ko Unibertsitatea+Enpresa II. Estrategiaren bidez. Helburua da unibertsitate-prestakuntza duala sustatzea, eta unibertsitate-prestakuntza duala egiten duten ikasleen kopurua bikoiztea, eta hurrengo lau urteetan 10.000 ikaslerengana iristea. Era berean, eskaintza bikoiztu nahi da, unibertsitateko prestakuntza dualeko 80 titulaziora iritsi arte.

Aldi berean, Unibertsitatea+LH programa bultzatu da, igarobideak errazteko, beren ikasketak adar bereko LH ziklo batekin indartu nahi dituzten unibertsitateko ikasleek, gutxienez, behar diren kredituen % 25 baliozkotu dezaten.

2023an, 2023ko Lanbide Heziketaren nazioarteko topaketa egin da Tabakaleran, "Ezinbestekoerantz aurrera egitea" izenburupean. Topaketa horretan, "gizakia etorkizunean" gaiari buruzko gogoeta bat planteatu zen, bilakaera teknologikoaren testuinguruan.

GAZTE ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA BEKAK

2023an, arlo zientifiko-teknologikoak babesten jarraitu da, bai eta nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektorea ere, gazteentzako beka espezifikoek deialdien bidez. Nazioartekotzearen eremuan, Beint International eta Global Training beken aldeko apustuak jarraitzen du.

HEZKUNTZA-MUNDUTIK LAN-MUNDURA IGAROTZEKO PROGRAMAK

Unibertsitateekin eta lanbide-heziketako zentroekin lankidetzan aritzeko programen bidez, gazteak hezkuntza-eremutik lan-esparrura igarotzeko prozesua indartu da. Ikasleei ezagutzak, trebetasun teknikoak eta trebetasunak zabalduko dituzten enpresa-esperientziak eskaintzeko lan egin da, ikasleak enpresen benetako eskaerak betetzeko prestatze aldera.

LEHENENGO AUKERA

Gazteei lehen lan-aukera ematea funtsezko lehentasuna da oraindik ere. Ildo horretan, Lehen Aukera 2023 programaren urteroko deialdia egin da, gazteek lehen lan-esperientzia lortzeko aukera izan dezaten, enpresek haien prestakuntza akademikoarekin lotutako roletan eurak kontratatuz.

Bestalde, toki-erakundeek EFG+ 2021-2027 programaren esparruan 16 eta 30 urte bitarteko gazteak kontratatuzko laguntzen deialdia egin da, haien enplegarritasuna lanbide-esperientziaren bidez sustatzeko.

TXANDA-KONTRATUA

Enpresetako plantillak berritzeko eta gaztetzeko, txanda-kontratuei laguntzeko urteroko deialdia egin da, lanaldi osokoa eta mugagabea, 30 urtetik beherako gazteak edo 45 urtetik gorakoak hasten direnetik.

Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak LanMentoring programa jarri du abian, Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentziarekin lankidetzan. Programa horrek laguntza-zerbitzu bat eskaintzen du enpresa txiki eta ertainei beren plantillen bizi-zikloa aurreratzeko, planifikatzen eta kudeatzen lagunduko dien prozesu bat errazteko.

GAZTEAK GIZARATERATZEKO PRESTAKUNTZA

Enplegurako Prestakuntzaren testuinguruan, prestakuntza-ekintzak inplementatzen jarraitu da, EAEko gazteen laneratzea errazteko, egokitzeko gaitasuna hobetzeko eta enpresen eskaerak asetzeko. Gainera, prestakuntza-ekintza espezifikoagoak eskaini dira, kualifikazio txikiko gazteak gizarateratzen eta laneratzen laguntzeko bereziki. 2023an, jarraipena eman zaio gazteei prestakuntza eta lana txandakatzeko Hezibi programari, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.



12. politika. Gazte Enplegurako Talka Plana

GAZTEAK GIZARTERATZEKO EKINTZA BERRITZAILEAK

Gazteen enplegarritasuna indartu egiten da oraindik ere, lehen lan-aukera ematen duten ekimen berritzaileen bidez. Europako funtsek garrantzi berezia izaten jarraitu dute Next Generation EU programaren eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Novia Salcedo Fundazioak jarraipena ematen dio "Reactivate 2023" programari. Programa horren helburua da gazte langabeak euskal enpresekin konektatzea, esperientzia kualifikatu bat eskura dezaten. Hasiera batean, programa belaunaldi-erreibokoko prozesu bati lotuta zegoen, baina 2023tik hona baldintza hori ez da beharrezkoai.

Bestalde, "Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa"ren deialdia irekita egon da 2023ko urriaren 31ra arte, 16 eta 30 urte bitarteko gazteei administrazio publikoetan eta sektore publikoko erakundeetan lehen lanbide-esperientzia emateko. Plangintza horrek berak Investigo programari jarraitu dio. Programa horren bidez, ikertzaile-profila eta I+G+B duten gazteak kontratatu nahi dira hainbat arlotan, hala nola osasun-arloan, datu-ingeniaritzan, ekonomia berdean eta gizarte-, kultura- edo arte-arloetako ikerketan. Programak hasierako aurrekontu-zuzkidura agortu zuen, eta 2023ko maiatzean handitu egin ziren deialdiari esleitutako baliabideak.

Era berean, bereziki kalteberak diren gazteei eta 45 urtetik gorako langabeei zuzendutako berronkarako eta ekitaterako proiektu pilotuak garatzeko SEPEk eta Euskal Autonomia Erkidegoak sinatutako hitzarmenak indarrean jarraitu du (orientazioko, prestakuntzako eta laneratzeko ekintzak konbinatzen dituzten banakako ibilbideak).

GAZTEEN EKINTZAILTZA

Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleen artean espiritu ekintzailea sustatzea apustu bat da oraindik ere, ekintzailtzako esperientzia praktikoa errazten duena eta ekintzailtza-prozesu osoan zehar gazteei laguntzen diena.

2023an, 2023-2026 aldirako programa-kontratuak sinatu dira EHUrekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin. Unibertsitatea+Enpresa+Gizartea programa-kontratua, unibertsitate-ingurunean eta handik kanpo ekintzailtza-kultura bultzatzeko.

Lanbide/Euskal Enplegu Zerbitzua Ekintzaileei laguntzeko eta autoenplegua sustatzeko laguntza-programa. Laguntza horrek prozesu ekintzailearen fase guztietan iraungo du, eta laguntza- eta tutoretza-jarduerak aurreikusten ditu.

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

Taula honetan, 2023an exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta gazteen enpleguarekiko konpromisoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana	2020-2024 aldirako aurreikuspena (1)		2023ko aurreikuspena (2)		2023ko exekuzioa (3)	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Enplegurako prestakuntza duala (***)	*	11.990	*	3.034	*	9.660
Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak	14 M€	3.280	3 M€	660	2 M€	690
Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak	42 M€	1.936	12 M€	419	10 M€	567
Gazteak laneratzeko prestakuntza **	18 M€	2.728	5 M€	960	3 M€	863
Gazteen enplegurako programak (****) Lehen Aukera, Errelebo Kontratua, Gazteen Itzulera eta Gazteak gizarteratzeko ekintza berritzaileak	65 M€	4.150	12 M€	1.087	44 M€	2.063
Gazteen ekintzailatza	23 M€	1.716	0,7 M€	368	0,7 M€	442
12. POLITIKA, GUZTIRA	162 M€	25.800	32 M€	6.529	60 M€	14.286

(*) Aurrekontua ez da sartu, LHko eta Unibertsitateko langileen gastuen kapituluan sartuta dagoelako.

(**) 2023an gauzaturako inbertsioaren atalean, ez dira sartzen ikas-ekinezko prestakuntzako Hezibi programako langile-gastuak (hasiera batean 1,5 eta 2 milioi euro artean aurreikusi ziren). Era berean, programa honen laneratze-tasa % 80koa izan da, hasieran aurreikusitako laneratze-tasa baino handiagoa.

(***) El incremento tan significativo de los datos en Formación Dual, se debe a la implantación de la Dual en FP en régimen general en 1º curso y en 2º curso. Hasta 2022, solo estaba implantada la Dual en FP en régimen intensivo y en 2º curso.

(****) Gazteen enplegurako programen exekuzio altuaren arrazoia, besteak beste, aurrekontu-aurreikuspenean eta eraginean sartu ez diren programa berri batzuk kontuan hartzea da. Programa horiek herri-administrazioetako lehen esperientziari (11M €, 389 enpleguko eraginarekin) eta Investigo programari (17,7M €, 408 enpleguko eraginarekin) dagozkienak dira.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) 2023ko datuen jatorria Superegiturak 210 - Enplegu Plana txostenean dago. 2023an sustaturiko enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da. Programa hori Sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2023ko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea. Era berean, kontuan izan behar da 2023ko aurreikuspenean enplegurako prestakuntzako jardueretarako zenbatetsitako laneratze-tasa murriztaileagoa zela (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45), eta, azkenean, hori aplikatu da 2023ko emaitzak kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.



2. eranskina

BERPIZTU 2024

Aurrekontu-aurreikuspena,
emaitzak eta ekintza nagusiak





I. ardatza – Ekonomia suspertzea

2024ko Berpiztu Programa

- 1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
- 2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
- 3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
- 4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
- 5. politika. Elikagaigintza
- 6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria



Berpiztu 2024. Aurreikusitako ekintza nagusiak

Aurreko orrialdeetan aipatu den bezala, 2020ko ekitaldia XI. legegintzaldiaren eta 2020ko irailean hasitako XII. legegintzaldiaren arteko trantsizio-ariketa izan zen, XI. legegintzaldiaren eta XII. legegintzaldiaren arteko trantsizio-ariketa izan zen. Berpiztu Programaren lehen ariketa osoa 2021ean egin zen, pandemiaren ondoriozko krisiak markatutako testuinguru sozioekonomiko nahasian. 2022. urtea Berpiztu programaren bigarren ekitaldi osoa da. Oraindik COVID-19tik guztiz berreskuratu ez den testuinguruan garatu da, eta Errusiak Ukraina inbaditzeak eragindako ondorioek egoera areagotu egin dute. Inbasioa 2023an jarraitu zuen, ebai eta Hamasen eta Israelgo Gobernuaren arteko beste gerra bat piztu ere.

Jarraian, 1. ardatzeko (Ekonomia suspertzea) 6 politikan garatzea aurreikusten diren ekintza nagusien aipamen orokor bat jasotzen da, baita dagokion aurrekontu-aurreikuspena ere, abenduaren 22ko 21/2023 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan oinarrituta.

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

2024an, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak Euskadiko pertsona guztientzako garraio publiko jasangarria, kalitatezkoa, eskuragarria eta irisgarria bultzatuko du. Aurreikusitako ekintzarik garrantzitsuenak, alde batetik, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Plan berriaren garapenean oinarritzen dira. Plan horrek mugikortasun jasangarriaren eredu berriaren eta berotegi-efektuko gasen emisio txikiko garraioaren aldeko apustua indartuko du. Beste aldetik, jarduketa-ildo nagusiak honako helburu hauek lortzera bideratuta daude: EAEko trenbide-azpiegitura hobetzea, hiri-garraioko trenbide-eskaintza hobetzea, Bilboko metro-sarea eraikitzea eta zerbitzatzea, euskal trenbide-sare berriaren bidez Europako sarean sartzea eta Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzea, Bilboko portuko salgaien joan-etorria errazteko. Eusko Jaurlaritzarentzat funtsezko helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan trenbide-sare berria eraikitzea, eta, beraz, proiektua atsedetik gabe bultzatzen jarraituko du, Estatuko Administrazio Orokorrekin sinatutako enkargua eta hitzarmenak garatuz. Horretarako, proiektuen idazketa bizkortzeko eta obrak egiteko kreditu-zuzkidurak egotziko dira.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren jarduketa garrantzitsuenek portuko babes-azpiegiturak indartzeko jarduerak jasotzen dituzte, azken urteotan ikusten ari diren ekaitzen inpaktu- eta altuera-energiaren aurrean. Horrela, 2022ko hirugarren hiruhilekoan hasitako Mutrikuko portuko kanpoko dikea luzatzen jarraituko da 2024an. Era berean, Ondarroako portuko babes-dikea indartzeko obrak hasi ziren 2023ko hirugarren hiruhilekoan, eta 2024ko azken hiruhilekoan amaitzea aurreikusi zen. Bi jarduera horiek burututa, Zuzendaritzak EAEko portuetako babes-dikeak sendotzeko eta egokitzeko programatutako jarduera nagusiak amaituko lirake epe laburrean.

URA Uraren Euskal Agentziak garatutako plangintza eta administrazio hidraulikoko politikari dagokionez, 2023an plan hidrológicoak eta uholde-arriskua kudeatzeko planak aldarrikatu ondoren, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua berrikusteaz gain, azken hori ezartzen jarraituko da, aurreko zikloko planen betetze-mailaren jarraipena egiten eta hurrengo zikloko hasierako dokumentuak egiten hasiko da.

Eta ibilguak mantentzeko eta lehengoratzeko lanekin, uholdeei aurre egiteko babes- eta prebentzio-lanekin, hornidura-lanekin, saneamenduarekin eta uraren kalitatea hobetzeko jarduketekin lotutako jarduerekin jarraituko da.

Berpiztu 2024. Aurreikusitako ekintza nagusiak

2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

Europako ereduari jarraituz, 2024an lanean jarraituko da ZTBPa ingurumen- eta gizarte-jasangarritasunerantz gehiago bideratzeko. Aktibo nagusi gisa, espezializazio adimenduneko estrategian (RIS3 Euskadi) eta «IKUR 2030 Bikaintasuneko Oinarrizko Ikerketa Lankidetzan» estrategian identifikatutako gaitasunetan eta indarguneetan oinarritzen jarraituko dugu. 2024an, programa horren beste deialdi bat egingo da, Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendu Orokor berrira egokituta, gainerako laguntza-programak egokituko diren bezala. Teknologia Zuzendaritzak, 2024. urtean, I+G proiektuei laguntzeko programak indartzen jarraituko du, bai enpresa-sektorerako (HAZITEK programa), bai ZTBESko eragileentzat (ELKARTEK programa). HAZITEK programari dagokionez, 2024ko berrikuntza nagusia izango da berrikuntza bizkortzeko programa berri baten bidez lagundu ahal izango zaiela ingurune errealean teknologia edo horren eskala bat ezartzea txertatzen duten ETEek garatutako proiektuei. EMAITEK Plus eta Bikaintek programak ere mantenduko dira. Gainera, jarduera nagusien artean daude ZTBESko Eragileen Erregistro Publikoaren kudeaketa eta BRTA Partzuergoa sendotzea.

Zehazki, 2024an zehar, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren garapena bultzatzen jarraituko da unibertsitate-eremuan eta bikaintasuneko oinarrizko ikerketa-zentroetan, bai eta talentua erakartzeko, sustatzeko eta atxikitze politikak ere, urtero handituz politika zientifikora eta unibertsitate-ikerkuntzara eta bikaintasuneko oinarrizko ikerketara bideratutako baliabideak. Bikaintasun eta Mugikortasun Taldeen deialdiei eutsi zaie, bai eta doktoretza-ondoko ikertzaileei zuzendutako mugikortasunaren aldeko deialdiei ere, atzerriko ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko mugikortasuna indartzen baitute. Unibertsitate-enpresa proiektuen deialdia indartu da, II. Unibertsitatea+Enpresa Estrategian (2022-2026) ezarritako helburuekin bat etorritz. Ekimen enblematikoetako bikaintasuneko oinarrizko ikerketa IKUR programaren bidez sustatzen jarraituko da. Nabarmentzekoa da Basque Quantum-en bultzada IKUR eta LINKER estrategiak indartzearen bidez indartuz. Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia ezartzen jarraituko da, bosturtekoan sustapen-politika publikoak gidatzen dituen.

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

Net-Zero Basque Industrial SuperCluster ekimena nabarmendu behar da. Ekimen horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan zero emisio garbietarako bidea bizkortzea, energia-horniduraren deskarbonizazioa eta energia-efizientzia sustatuz energiaren erabilera intentsiboa duten industria-sektoreetan, teknologia berrien eta zerbitzu berritzaileen eskalatzeko oinarritutako merkatu-aukerak sortuz. 2023an onartutako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Legearen proiektuaren arau-garapenean eta bere ezarpenean jarraituko da 2024an, bai eta datozen urteetan deskarbonizazioaren arloan jarraitu beharreko bidea markatuko duen 2050 Klima Aldaketaren Estrategiaren ibilbide-orrria egiteko lanak amaitu ere.

Ingurumena Kudeatzeko Euskal Sistema berria (INGURUNET) garatzeko eta ezartzeko prozesuak ezartzen jarraituko du 2024ko ekitaldian. Tresna horri esker, herritarrek, kolektiboek, erakundeek, enpresek eta erakundeek ingurumeneko administrazio-prozeduren teletramitazioa eta jarraipena egin dezakete, eta horrela prozesuak eta baimenak ahalik eta gehien sinplifikatzen dira. 2024an, hondakinen trazabilitateari buruzko informazioaren digitalizazioa garatzeko lehen esperientzia pilotua ezarriko da. Proiektuak eta jarduerak hedatzen jarraituko da funtsezko intereseko eremuetan, hala nola 2023ko martxoan onartutako 2030erako V. Ingurumen Esparru Programaren helburuetan, 2030erako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean, 2024rako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plan Estrategikoan, 2024rako Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoan, 2030erako Lurzorua Babesteko Estrategian, 2030erako Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programan, 2030erako Biodibertsitate Estrategian eta 2030erako ZTBPrekin bat eginez, bai eta Gobernuaren eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren plangintza estrategikoan ere. Gainera, 2030erako Euskadiko Airearen Kalitatearen Plana 2023aren amaieran onartu ondoren, haren jarduketak ezartzen hasiko da.

Berpiztu 2024. Aurreikusitako ekintza nagusiak

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

